

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

20.0000

IRAKURLE

eskerririk asko!

*2018ko CIES ikerketaren arabera

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Instagrameko zure profilean (@soy_yogi) yoga irakasletzat duzu zure burua.

Hala da, jardunaldi osoan gainera.

Nola hasi zinen yogan?

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresa Zuzendaritza eta Administrazio ikasketak egiten ari nintzela lagun batek aipatu zidan irakasgai lektiboan artean yoga zegoela. "Uf, ez, niri gauza horiek erlaxatu beharrean gehiago estresatuko naute..." iltzatuta dut erantzun hori. Urte batzuk geroago, Bogotán bizitzen nengoela, aldaketa handia izan nuen nire bizitzan: lanik gabe geratu nintzen, erabat estresatuta nengoen eta burua zer edo zer arintzeko ariketa fisikoa egiteko beharra ikusi nuen. Saltsa egin nahi nuen, baina ikastaroa urruti zegoen, eta oinez joateko moduan gertu yoga estudio bat nuenez, hara jo nuen, errezelo pixka batekin. Baina yogak guztiz harrapatu ninduen. Irakaslea ere kolonbiarra zen, baina urte asko zeramatzen Bilbon, eta gure pertsonalitatea ere ezagutzen zuen, oso ezberdinak baikara (kar, kar...). Eta egunero joaten hasi nintzen.

Zergatik da garrantzitsua klaseetara oinez joan ahal izatea?

Oso galdera ona da hau. Galdezen didatenean yoga klaseak hartzera nora joan daitezkeen, beti erantzuten dut: "gertuen gelditzen zaizun tokira, oinez joateko moduan". Klasea ordu erdiko tartera baduzu, garraioa hartu behar baduzu... azkenean aitzakia bat duzu gaur ez zozela esateko. Garrantzitsua da aktibitatea gertu izatea.

Yogan hasi eta urte bete baino gutxiagora irakasle egiaztagiria lortu zenuen.

Bost urte daramatzat yogan. Hasi nintzenean langabezian nengoen, lan bila, eta yoga ikastera nindoan estudiokoek yoga irakasle izatea proposatu zidaten. Egunero yoga egitera nindoanez, baiezkoa eman nien, pentsatuz nire egunerokoa ez zela horrenbeste aldatuko. Irakasle egiaztagiria ateratzea erabaki nuen eta ordutik nabil irakasle. Egia esan, nire bizitzako trantsizio batean gertatu zen dena; ez nuen ezerekin apurtu behar izan mundu honetan sartzeko, nolabait "emana" etorri zitzaidan eta argi ikusi nuen bidea hori zela, yoga.



DIEGO ARAUJO

"Niretzat yoga norberaren ezagutza da, efektu guztietara"

MAITE AGUIRRE ORTEGA YOGA IRAKASLE ALTSASUARRA

Yogan duela 5 urte hasi zen Maite Aguirre, Bogotan. Munduan barna yoga irakasle izan eta gero, 3 urte daramatza Madrilen, yoga tailerretan eta erretiroetan murgilduta

Aurretik kirola egiten zenuen? Badirudi 5 urtetan zuk duzun gorputza trebatzea ezinezkoa dela...

Alde horretatik nire aitak eta amak asko eman didate, genetika, oso malgua naiz. Beti egin izan dut zerbait: Altsasun urte luzez atletismoan ibili nintzen, Iruñean aerobica eta gimnasioa, nahiz eta gimnasioa oso gustuko ez izan... Nire aitarekin txikitatik beti izan nuen argi gorputza landu behar dela, bereziki buruari begira, buruak dituen kezka, nerbioak eta urduritasunak kentzeko. Yoga deskubritu nuenean, orduan ulertu nuen zenbaitek bizikleta hartzeko edo futboleko jolasteko duten grina. Niri yogak eman zidan pasio hori. Orain gutxienez egunero 5 orduz egiten dut ariketa fisikoa, beti nago agujetekin baina ohituta nago: gorputza eta burua ohitzen doaz.

Zenbat denbora daramazu Madrilen yoga irakasle?

Hiru urte. Kolonbiatik atera eta Madrilera heldu bitartean yogari esker bidaia asko egin nituen. Yoga egiaztagiria AEBn atera nuen, Kalifornian. Tartean AEBn, Kolonbian eta Erdialdeko Amerikan klaseak ematen aritu nintzen, El Salvadorretik Panama bitarteko herrialde guztietan, eta gero Norvegiar hila bete egin nuen irakasle. Ondoren Madrilera etorri nintzen. Pixkaka itzultzen hastea zen asmoa. Madrilen, autonomia naiz eta yoga klaseak ematen ditut. Egun, tailerretan eta yoga erretiroetan nago zentratuta.

Zer da yoga, hitz gutxitan esanda?

Definizioa, berez, batasuna da: gorputzaren eta adimenaren batasuna. Niretzat, ordea, norberaren ezagutza da, efektu guztietara. Batetik, zure gorputzaren ezagutza. Nik badakit gorputzaren zein alde dudan sendoagoa, badakit aldaka bat bestea baino gehiago zabaltzen zaidala, postura konkretu bat lortzeko nola lan egin behar dudan nire gorputzarekin... Eta, bestetik, zure buruaren ezagutza. Meditazioan ematen duzun tarre horretan badakizu noiz sartzen zaizun pentsamendu bat, noiz urduritzen zaren, zer gertatzen zaion gorputzari eta honek nola erantzuten duen... eta alderantziz, zure burua nola erlaxatu behar duzun... Oso konplikatu da azaltzen, baina zure burua ezagutzera heltzen zara. Puntu horretara heltzea asko kostatzen

da, eta prozesu psikologikoa denez, sarritan guztia pikutara bidaltzeko tentazioa duzu, adimena oso puñeteroa delako. Finean, zu kanpotik begiratzeko ikastea da kontua.

Fisikoki gorputza izugarri lantzen duzue. Egiten dituzun mugimenduak ikusgarriak dira. Eta, bitartean, pentsatzen ari zarete, hausnartzen, arnasa hartzen, isiltasuna...

Yogaren alde fisikoan, posturak edo asanak daude. Yogaren alde fisikoaren helburu nagusia zure gorputza behar bezala lantzea eta prestatzea da, bizkar sendoa eta aldaka malguagoak izateko, eseri eta mediatu ahal izateko. Gehienetan jendea yogaren alde fisikoarekin geratzen da soilik, eta ni ere hasieran horrela hurbildu nintzen yogara. Baina yoga zurekin badoa, sentitzen baduzu, aldaketa ikusten hasten zara. "Hara, arnasa hartzen dudanean ez diot horrenbeste entzuten nire buruari!" pentsatzen hasten zara. Arnasketara ere oso garrantzitsua da, eta, bitartean malgutasuna lortzen hasten zara. Yogaren lan fisikoa ikusgarria da, baina baita adimenaren eta buruaren askatzeak, zure gorputza joaten uztea eta beste tokietara iritsi ahal izatea.

Zein yoga mota lantzen duzu?

Milaka mota daude. Yoga geroz eta herrikoia den heinean, modalitate gehiago sortzen doaz, zenbait marketing hutsa. Nik bereziki vinyasa flou eta yin yoga lantzen ditut. Yoga erretiroetan nago zentratuta. Asteburu edo egun batzuk toki batera joan eta yoga eta bestelako aktibitateak egiten ditugu. Azken erretiroa zubi foralean egin genuen, Nafarroan, Iltzarben. Gurasoak eta koadrila bisitatzeke probestu nuen. Oso lanpetuta nago, baina Altsasura bi hilabetetik behin etortzea lortu

"INSTAGRAM BEGIETATIK SARTZEN DA, ARGAZKIEKIN, BAINA ESENTZIA IDAZTEN DUDANA DA"

"YOGAN MURGILTZERA ANIMATZEN DITUT GUAIXEKO IRAKURLEAK: ONURA HANDIAK DITU"

nuen iaz eta ea aurten ere betetzen dudana. Santa Agedatan etorriko naiz, kintoekin egotera, aspaldi ez bainaiz egon.

Instagramen sekulako arrakasta duzu, 65.700 jarraitzaile baino gehiago. Horretaz gain www.soy-yogi.com web gunea kudeatzen duzu. Denbora dezente emango dizu horrek, ez?

Sare sozialak eta web gunea kudeatzeak denbora nahikotxo eskatzen dute. Maitasun asko jasotzen duzu sareetatik, baina ongi kudeatzen jakin behar duzu, bestela sareek ordu guztiak jaten dizkizute: argazkia atera, testua pentsatu eta idatzi, erantzunak irakurri, jarraipena egin... Datuei begira, jarraitzaileen zenbakia ongi dago, aukerak ematen dizkizu eta ikusgarri egiten zaitu, baina niri interesatzen zaidana jendea mezuarekin geratzea da, esan nahi diodanarekin.

Instagramen dituzun argazkiak ikusgarriak dira, gehienak Diego Araujok ateratakoak, ezta?

Bai, gehienak bereak dira, eta oso politak dira, egia esan. Argazki bakoitzari testua jartzen diot, hausnarketaren bat, jendeak irakurri dezan eta modu horretan, zuk nahi duzun publikora iristeko. Izan ere, Instagram begietatik sartzen da. Argazkiarekin arreta pizten duzu: nik egin ahal ditudan posturak dira agertzen direnak, baina jende askok egin ezin dituenak. Artea sortzeko nire modua da hori. Baina nire esentzia argazkiaren ondoan idazten dudanean dago, eta jendea nire mezuarekin geratzea, hori da niri interesatzen zaidana. Aste honetan mundu guztiak ariketa egiten hasi nahi du urtea, tartean yoga egiten. Eta horri buruzko hausnarketa bat jarri nuen ere.

Zure web gunean yogari buruzko informazio landuagoa duzu.

Bai, hori nire ataria da, eta yogari buruzko informazioa eta nire eskaintzen berri ematen dut, tartean. Nik kudeatzen ditut web gunea eta sare sozialak, eta sarritan esaten didate: zergatik ez duzu Youtuben kanal bat zabaltzen? Jendea ez da kontziente honen guztiaren atzetik lan handia dagoela eta ni, berez, yoga irakaslea naizela eta ordu asko ematen ditudala klase, tailer eta erretiroekin. Nire lana klaseetan dago, horrek asetzen nau, ez nago egun guztia ordenagailuan. Bestetik, gelditzeko tartea ere hartu behar



DIEGO ARAUJO



MAITE AGUIRRE

da. Ezin ditut, batetik, lasaitasunaren eta ongi egotearen baloreak sustatu eta, bestetik, lanetik ezin deskonektatuta ibili. Lanetik deskonektatzen eta gelditzen jakin behar da.

Cristina Pedroche telebista aurkezlea zurekin argazkietan sarritan ateratzen da. Elkarren artean lotura eta harreman oso ona duzuela ikusten da.

Berari yoga irakatsiz hasi zen gure arteko harremana, baina egun, nire yoga praktika pertsonala da berarekin egiten dudana, zerbait ezberdina. Yoga egiterakoan biek elkarrekin bat egiten dugu, eta gauza asko aztertzen ditugu, postura konkretu bat nola hobetu behar dugunetik hasita, meditatzen gaude nean burutik pasatzen zaiguna elkarri kontatzera arte. Batak besteari elikatzen diogu, eta, ildo honetan, ni ere berarekin korrika egiten hasi naiz, lasterketa batzuk egin ditut berarekin. **Madriren jarraituko duzu edo zeintzuk dira zure asmoak?**

Bizitzak buelta asko eman ditzake, nik hori oso ongi ikasi dut. Nire bikotekidea beste kontinente batekoa da, AEBkoa. Une honetan Madriren oso pozik nago, eta Altsasutik gertu nago, ezin naiz kexatu. Beraz, nagoen bezala jarraitzea, nire burua zaintzea eta lesioek errespetatzea, horiek dira gertuko helburuak. Gero, geroakoak.

Guaixeko irakurleak yogan murgiltzera animatuko zenituzte?

Jakina! Hamaika arrazoi daude horretarako. Yogak alde fisikoetik dakartzen onuretatik hasita, ni ez bainaiz, inoiz, horren indartsu eta malgua egon. Pertsonen mugikortasun egokia izatea nahi dugu, bereziki urte batzuetatik aurrera, norbera bere buruarekin ongi sentitzeko. Baina hori urte batzuk lehenago lantzen hasi behar dugu, eta yoga aukera paregabea da. Izan ere, yogaren alde fisikoak bizitza kalitate handia ematen du. Bestalde, yoga ere beste kirol ekin-tza baten osagarria izan daiteke. Demagun korrikalari batendako. Korrikan luzaketa egokiak egitea oso garrantzitsua da, eta yogak horretan laguntza handia emango dio. Eta behin yogan hasita, yogak norbera behar dueneraino eramanez. Norberak bere burua hobeto ezagutu nahi badu, arnasa behar bezala hartzen ikasi nahi badu... aurrera egingo du.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Ur goienak eta ur barrenak dakartena

Hala ere, aurtengo urte aldatzeak ur gutxi ekarri digu, halako xuhurkeriaz ekarri digunez. Laino eta lanbro ederrak, bai, ukan ditugu eguerrian zehar. Gure baitako bazter miresgarriak haur baten harriduraz begiratzeko laino trinkoak. Argi zoragarriko egunak, bestalde, ez ditugu eskas izan, Beriaingo haitz eta magal gorrietan islatzen ziren argi xume nahiz indartsuak, irudi hunkigarriak basaki marrazten zirela egunsenti dotore, eguerdi ahaltsu nahiz arrats motxetan.

Argia ia itsugarria Vienako Muzikverein areto dezimononikotik. Pop musikaren jatorria den Urteberriko kontzertuak harro eta handikiro erakutsi zion hainbatgarrenez munduari Europa ustez dekadentearen distira eta oparotasuna, ukenduz eta piper goxoz, aratz eta txukun.

Argiz beteak, halaber, gure mendietako gailurrak urteko lehen goizeko txangoetan. Artxueta, Bargagain, Gorbeia,

Adarra, Larrun edo Pagasarrin gozatu ederra hartu zuten mendizaleek, gosari oparoak eta umorea lagun.

Elur arrastorik ez, ordea, teilatuetan edota gertuko mendietan. Ihintza, bai, franko, auto eta zelai

gainetan, *Dantza* filmeko zomorroak akabatzaile.

Euri eta ur gutxiko urtatsa, beraz, garai likidoetan bizi garen arren. Gaur goizean mugiezin eta betiko zirudiena bazkalondoa beste muturrera alda liteke lasai asko. Azken beltzean, Joxan Artzerenak hizpidera ekarriz "Urak dakarrena urak daroa" eta gizakia funtsean urezkoa izaki, bidean edo bide bazterrean gu, geu, geroni gelditzen gara lurrundurik, edo apika gure hondarra. 2019 uros eta zorionsua!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekokoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bakegintza eta elkar bizitzaren bidean: presoak orain!

SAKANAKO SARE

Horra Euskal Herriak, bere aniztasunean, nahi eta behar duen bide orria, bi Estatuei berriro eskatuko zaiena urtarrilaren 12an. Bilbon eta Baionan esanen dugu bakearen bidea alde guztien eginkizuna dela: jendarteara bere aniztasunean, elkarrean, instituzioena, estatuena. Baina Estatuak dute gakoa!

Presoen alde, ORAIN, egin behar dira urratsak: prozesuaren abiadura aldatu beharra dago. Urgentziatzeko garaian sartuak gara! Presoen auzia konpontzeko unea etorria da! Salbuespen neurriak kendu behar dira, giza eskubide arruntak errespetatzea delako, gaurko egoera politiko berriak eskatzen duelako, eta bake orokor eta integral baten

oinarria delako! Eta bihar, marko juridiko berri bat beharko dugu, bake prozesuari egokitu.

Orain arte egin diren alde bakarrek urratsek eskatzen dute erantzuna bakearen dinamika elikatzeke. Gaur eman behar diren pausoak ez emateak balioa kentzen ahal diete atzo egin ziren urratsei... Ezinbestezkoa da konfirmatzea orain arte egin dena, egin behar zela eta ona zela bakearentzat! Bidea, hortik doa. Eta hortik urratu behar dugu iraganetik etorkizunerako trantsizio hori...

Iraganaz ezer baztertu eta ahaztu gabe, egin behar dugu bidea. Indarkeria guztien biktima guztiei zor diegun egia, errespetua eta errekonozimendua. Zor diegu iragana ez errepikatzea, eta, horretarako lan egitea,

edozein izanik ere gure arteko ezadostasunak.

Aspaldiko urteetan posible izan ez zen elkar bizitza demokratikoa, azkenean posible ikusten da gure Herrian! Orain arte batu ahal izan ez garenen ariketa kolektiboa izanen da!

Eginbide horrekin, esperantza horrekin, zorrotasun horrekin, guzientzat ona izanen den bakea eraikiko dugu. Egundako bakoitzak kontatzen du. Bakoitzaren inplikazioa beharrezkoa da.

Elkar bizitzarako prozesu horretan, ORAIN, PRESOEN etapa izan behar da!

Bakearekin guztiak irabazle baikara: egin dezagun denak irabazle izanen diren bakea!

GUZTIAK, GUZTIAK ETA GUZTIAK BIL GAITEZEN BILBON ETA BAIONAN !!!

OBJEKTIBOTIK

Urriko elurra, zortzi hilabeteko elurra?

Atsotitzak hala dio, baina aurten ez dirudi halakorik izango dugunik. Urriko elurra egun batez egin zuen, baina ez dirudi nahikoa izan zenik zortzi hilabetez egiteko. Elurra mendi gainetan ikusi ahal izan dugu aste honetan, baina gure herrietan ikusteko itxaron behar izango dugula dirudi.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Guaixe astekariak astero 20.000 irakurle ditu

CIES etxeak egindako 2018ko Nafarroako hedabideen audientzia ikerketak ezagutarazi du datua. 20.000 irakurlerekin Mendialdean erreferentia da Guaixe astekaria, hainbat egunkariren eta aldizkariren aurretik

SAKANA

Jakina da tokiko prentsa etxe askotara sarbidea duela eta, beraz, irismen handia duela. Hedabideen irismena ezagutzeko egiten dira hedabideen audientzia ikerketak. Nafarroa ederki ezagutzen du eta prentsa, irrati eta telebista audientzien ikerketa egiten eskarmentu handia du CIES etxeak. Horregatik, Nafarroako audientziak ezagutzeko tresna fidagarriena da. CIES etxeak joan den urtean egindako hedabideen audientzia ikerketan Guaixe astekariari astero 20.000 jarraitzaile zenbaitu dizkio. Horien artean sakan-darrak eta ibarretik kanpoko irakurleak daude.



Guaixe aleak inprentan banaketarako prest. ARTXIBOA

Nolako zara, irakurle

Ikerketaren arabera, Guaixe astekariko irakurleen % 55 emakumezkoa da eta gainontzeko % 45 gizonezkoa. Guaixeren irakurle gehien pilatzen duten adin tarteei dagokionez, 25 eta 34 eta 35 eta 44 urte artekoak dira, % 20arekin bakoitza. Hurrengo hiru adin tarte bakoitzean (45-54, 55-64 eta 64 urte baino gehiago) Guaixeren irakurle multzo handia dago, bakoitzean % 15. Gazteen artean du irakurle kopuru txikiena, 14-19 eta 20-24 adin tarte bakoitzean % 5.

Irakurleek familian duten rolari dagokionez, Guaixeko irakurle gehienak, % 60, etxeandreak dira. Guaixe gehienbat Sakanan eta Nafarroako Mendialdean irakurtzen da, % 90. Iruñean eta Iruñerrian, berriz, % 5. Aurreko datua ikusita, jakina, Guaixek irakurle gehienak 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan du, % 70. 5.000 eta 10.000 biztanle artean dituzte Altsasun eta Iruñerriko hainbat herri eta horietan Guaixeren irakurleak % 25 daude. Sakanaz informatzeko Iruñean

Guaixe irakurtzen dutenak, berriz, % 5 dira.

Hizkuntzaren ezagutza mailari dagokionez, Guaixeko irakurleen % 65 euskaraz hitz egin, irakurri eta idazteko gai da. Beste % 10 euskaraz hitz egin eta irakurtzeko gai da. % 5 euskaraz hizketatzen da. Gainera, irakurleen % 15ek aitortzen du euskara ulertzen duela. Azkenik, Guaixek baditu euskara ulertu ez arren hura irakurtzen duten irakurleak, %10. Horietako batzuk sareko itzultzaileak erabiltzen dituzte.



Pentsio duinen alde astelehenean egindako bilkuretako bat.

Pentsio duinen aldeko aldarrikapenak ez du etenik

1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta erreformak bertan behera gelditu arte protestan segitzeko asmoa dute

SAKANA

Asteartean urtebete eginen du pentsio duinen eskaera kalera atera zutela hainbat pertsonen. Urte beteko mobilizazioen eta presioaren ondoren gaia alderdi politiko eta gobernu guztien agendan sartzea lortu dute. Bestelako lorpenak ere izan dituzte: pentsioak Kontsumo Prezioen Indizearen arabera eguneratzea, aurreikusia zegoen jasangarritasun faktorea bertan behera gelditu da, alargunen pentsioak ez txikitzea eta 52 urte edo gehiagorekin langabe gelditzen direnak kontuan hartzea.

Hala ere, pentsio duinen aldeko mugimenduetako kideek argi dute lorpen horiek ez dituztela dituzten helburuetatik urrundu. Horregatik, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea eskatzen segitzen dute. Horrekin batera,

pentsio duinen aldeko mugimenduen eskaeren artean daude: botiken ordainketa partekatua desagertzea eta 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformak bertan behera uztea.

Helburu horiek dituztelako pentsio duinen aldarrikapena kalera ateratzen segituko dutela jakinarazi dute mugimendutik. Hura osatzen duten plataformak bilera egitekoak dira aurrerantzean euren eskaerak nola egin zehazteko. Hauteskunde urtea izanik kaleko presentzia ez dute galdu nahi. Bitartean, Altsasun, astelehenero kontzentrazioak egiten segituko dute. 12:00etan, Sasoak eta Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeek deituta eta, 19:00etan, Otsailaren 22ko plataformak deituta. Hurrengoak Zumalakarregi plazan izanen dira. Bestetik, Sasoak hilean behin Irurtzunen eta Etxarrin antolatuko ditu.



107.3 FM

beleixe

guaixe.eus-en ON LINE

Denboraldi berria

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarrizketak

11:20 Sarea: Karrape eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioaren bukaera

Razkin harategiko txistorra 3. Donostian

Euskal Herriko Txistor Lehiaketako podiumean sartu zen. Aurreko urteetatik bi bosgarren sari lortuak zituen Euskadiko eta Nafarroako txapelketetan. Txistorrak egiteko kalitatezko produktuak txukun lantzen dituztela gaztigatu digu Razkinek

ARBIZU

Donostiako Santo Tomaseta XXIII. Euskal Herriko Txistor Lehiaketa jokatu zen eta txapela Getariko Ezkurtzerri SLk irabazi zuen. Hirugarren saria Arbizuko Razkin harategiak irabazi zuen, 200 euroko saria eta trofeoa. Anastasio Razkin Unzillak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) azaldu duenez, aitzak zabalduetako harategian lan egiten du berak, Marta arrebarekin batera. Bere "bizi gehiena" harakina izan dela gaineratu du.

Halako sariak irabazten dutenek eragina nabari dutela aitortu du Razkinek Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus). "Herrikoek ere ikusten dutenean hirugarren egin duzula asko pozten dira ere. Zorionak eta horiek denak esaten dizkizute. Herrian badauka oihartzuna. Baina irabaztea bezala ez da hirugarren egitea, noski, hori argi dago". Salmentan eragina izanen duen galdetuta, "heldu den urtean esanen dizut" erantzun du, umorez. Saria motibagarria dela aitortu du Razkinek: "zure izena aditzen duzunean, gauza handia da".

Egikera

Txistorraren errezetaz galdetuta, Razkinek esan duenez, "txistorrari bota nahi diodana erosten dut. Eta nik kalitatea nahi dut erosi. Gauza txukuna eta kitto. Ez dago besterik". Azaldu duenez, "masa kantitate ttikiak" egiten ditu, "askoz hobeki maneiatzen duzu". Lehiaketarako ezer berezirik ez zuela eraman aitortu du Razkinek: "haragia ekarri. Egun bat hozkailuan egon, puskatu, nahasi eta bete. Batzuek masa egun batez hozkailuan uzten dute, pixka bat ontzeko edo. Nik masa bat egin nuen. Lehiaketara lau txistor eraman behar ziren eta nik eskuz zortzi lotu nituen. Gero,



Anastasio eta Marta Razkin Unzilla anai-arrebak harategian.

gutxi gorabehera, laurri berdina zein ziren ikusi nuen eta haiek joan ziren". Lehiaketara "beti egiten duguna" aurkeztu zuten, beraz. Azaldu duenez, lehiaketarako eskuz lotuta eraman behar dira txistorrak, bestela, harategian grapagailu batekin lotzen dituzte txistorrak. Razkini txistorrak gustatzen zaizkio "egin eta hurrengo egunean" jateko, "bestela, nire gurturako gehiegi sikatzen joaten dira".

Gipuzkoa eta Nafarroa artean hiru txistor lehiaketa daude. Hiruretan hamarren bat aldiz parte hartu izan du Razkin harategiak. Bi bosgarren sari lortutakoak dira harakin arbizuarrrak. Baina arbizuarrek 2018an soilik Donostiako lehiaketan parte hartu zuten. Nafarroako lehiaketan parte hartzeko asmoa bazuten, "baina eguna pasa zitzaidan, eta ezin joan". Ordiziakora ere ezin joan gelditu ziren arbizuarrrak.

Donostiako lehiaketara joatea erabaki zuten anai-arrebek. Gipuzkoako hiriburuko Txistor Lehiaketan parte hartzen zuten bigarren edizioan lortu du Razkin harategiak hirugarren saria.

Zenbaki bakoitien eskaileran gora, hurrena lehenengoa litzateke.

Donostiako Txistor Lehiaketari buruzko argibidea ere eman du Razkinek Sakanako irrati euskaldunean. Azaldu duenez, bertan egon behar duzu, "bestela saria galtzen duzu. Lehendabizi denei banan-banan hots egiten diete eta denak daudela begiratzen dute. Bakarren bat ez badago zerrendatik borratuko dute eta gero hirugarrenari, bigarrenari eta lehenengoari ematen dizkiote sariak".

Razkindarren sariak

13. Euskadiko Txistor Lehiaketa
• Ordizia 5. saria.

9. Nafarroako Txistor Lehiaketa
• Iruñean 5. saria.

23. EH-ko Lehiaketa
• Donostian 3. saria.



Ordiziako eguberritako feria berezian egin zuten ekitaldia.

Hiru gaztagilek atzerriko sariengatik aitortza jaso dute

Unanuko Balda, Artola y Otros-ek, Arbizuko Araña-Etaio eta Etxarriko Julen Karasatorrek jaso dute aitortza

UNANU / ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Urtean zehar atzerriko lehiaketetan sariak lortutako gaztandegiei aitortza egiten die Idiazabal gazta jatorri izendapenak Ordiziako eguberritako feria berezian, urtero. Abenduaren 26an egindako ekitaldian, izendapenaren presidente Jose Mari Ustarrozek hitza hartu zuen eta omendutako gaztandegiei esker eman zizkien "jatorri izendapen honen eta Idiazabal gaztaren itzala eta izen ona zabaltzen laguntzeagatik".

Idiazabal jatorri izendapeneko 36 gaztandegik 72 sari lortu zi-

tuzten pasa den urtean. Haien artean Unanuko Balda, Artola y Otros gaztandegiaren Beriain gaztaren bi sariak daude. Alde batetik, Lyongo Etxalde Gazta Lehiaketan lortutako hirugarren saria eta, bestetik, Munduko Gazta Txapelketan lortutako urrezko domina.

Azken lehiaketa horretan beste bi gaztagile sakandarrek ere zilarrezko domina bana lortu zuten. Batetik, Arbizuko Araña-Etaio gaztandegiko Juananeko gaztak eta, bestetik, Julen Karasatorre etxarriarraren Naparbaso gaztak.

Putreen sei erasoengatik kalte ordaina jaso dute abeltzainek

2014 eta 2018 artean izandako sei erasoengatik gobernuak 6.907,08 euro pagatu dizkie abeltzainei

SAKANA

Basa-faunak bizirik zegoen azien-dari egindako 120 eraso salatu dituzte abeltzain nafarrek 2014 eta 2018 artean. Gobernuaren albaitariak haietako 77 baieztatu zituzten eta, horregatik, foru administrazioak 48.063,03 euroko kalte ordainak pagatu ditu. Gehienak putreen erasoak dira.

Sakanako abeltzainei onartutako eraso guztiak putreenak dira. 2014an olaztiar bati behorra eta pottoa hil zizkioten eta 1.150 euroko kalte-ordaina jaso zuten. Hurrengo urtean putreek

ere behorra eta pottoaren kontra jo zuten eta unanurak 1.205,08 euro jaso zituen. 2016an Iturmendin behor bati eraso zioten eta kalte ordaina 1.052 eurokoa izan zen. 2017an Ziordian behien kontrako bi eraso izan ziren eta aldi bakoitzean abeltzainak 1.350 euro jaso zituen eta, bestea, Etxarri Aranatzen izan zen, behor baten kontra jo zuten eta 800 euroko kalte ordaina eman zion administrazioak abeltzainari. Bestetik, txakurrek behorrei eraso zioten Unanun joan den urteko maiatzaren 24an.



Altsasu Koop-eko euskara batzordea.

Euskara enpresen funtzionamenduan sartzeko diru-laguntza

Gobernuak enpresetan euskararen erabilera, presentzia eta ikusgarritasuna areagotzeko planak sustatzeko laguntza deialdia egin zuen. Enpresarako lehen euskara plana egiteko, planean aurreikusitako jarduerak gauzatzeko eta ekintza zehatzetarako laguntzak eman ditu gobernuak. Altsasuko Kooperatibak 15.132,5 euro eta La Burundesak 15.250 euro jasoko dituzte.

Korrika apirilaren 9an iritsiko da Sakanara

Kilometroak hartu eta diru ekarpena egiteko aukera astelehenetik aurrera dago. Sakanako AEKren Itsasi euskaltegitik pasa daiteke, Altsasuko Gartzia Ximenez 46tik; bestela, 948 468 258 telefonora hots egin edo sakana@aek.eus e-postara idatzi

SAKANA

AEK-k 21. Korrikaren ibilbidea aurkeztu du gaur. Jakina zen aurtengo Korrikak *Klika* leloa duela. Baita apirilaren 4an Garesen hasiko dela ere Korrika eta apirilaren 14an Gasteizen bukatuko dela. 11 eguneko lasterketan euskararen lekukoa eskuz esku ibiliko da Euskal Herri guztian barna. Korrikak ekuatorea, seigarren eguna, Sakanan hasiko du. Apirilaren 9an, asteartean, 01:00 aurretik Aizkorbetik sartuko da Korrika Sakanara eta puntatik puntara zeharkatuko du, Ziorditik 05:37ean alde egiteko. Korrikaren azken hiru edizioetan lekukoa



Joan den urteko Korrika Urritzolatik igaro zenean. ARTXIBOA

gauz pasa da ibarretik (2015eko eta 2017ko edizioetan pasatu zen bietan hala izan zen).

Familia, elkarte kide, lagun, lankideekin edo bakarrik parte hartuko du jendeak aurten ere.

Korrika 21 Sakanan

Herria	Ordua
Irurtzun	01:01
Etxarren	01:23
Irañeta	02:10
Uharte Arakil	02:25
Lakuntza	02:59
Arbizu	03:13
Etxarri Aranatz	03:45
Bakaiku	04:06
Iturmendi	04:15
Urdiain	04:22
Altsasu	04:45
Olatzagutia	05:17
Ziordia	05:37

[yonolotiro.es]

Zirkulatu ezazu.



yonolotiro.es. Zure berrerabilpen-webgunea

Sustatzailea



Oficina de Prevención de Residuos y de Impulso a la Economía Circular
Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoa

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Espartaketa, S.A.
Gestión Asociada de Navarra, S.A.

residuos de navarra
nafarroako hondakinak

Laguntzailea

Mank.
Sakanako Mankomunitatea

Altsasuko Udalak udaltzain izateko deialdia egin du

Deialdia plaza bakarrerako da, baina plaza gehiago betetzeko izan daitekeela jakinarazi du udalak

ALTSASU

Altsasuko Udalak udaltzain izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdia argitaratu zuen atzo Nafarroako Aldizkari Ofizialak. 2018 akaberan udaltzaingoan izan zen jubilazio batek hutsi utzitako plaza betetzeko da. Deialdian bertan udalak jakinarazi du oposizio horren bidez beste udaltzain plaza bat betetzeko aukera izanen dela. Interesatuak euren eskaerak gaurtik hasita 30 eguneko epean aurkez ditzakete Altsasuko udaltxean. Altsasuko Udalak goiz



Dendariekin hitzarmena berritu du ere.

eta arratsaldeko zerbitzua emateko 7 udaltzain nahi ditu. Gaur egun 2 laguntzaile besterik ez daude. Eta, horregatik, udalak Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu zuen, Foruzaingoa aldi baterako udaltzainen lan batzuk egin zitzaten.

Lanak

Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak Aldakin SL enpresari eman dio argiteria publikoa berritzeko lehen faseko lanak. 278.419,52 euroren truke. Lanak gobernuaren dirulaguntza dute. Bestetik, Altsasuko Udalak hirigintza plana egiteko kontratazioaren deialdia egin du. 202.479,33 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du deialdiak. Interesa dutenek euren proposamenak otsailaren 28ko 14:30era arte aurkeztu ditzakete.

Aurtengo greba feminista prestatzeko bilera

Emakumeak planto!* lelopean mugimendu feministak greba feministara deitu zuen 2018ko martxoaren 8an. Egungo ekonomia ereduak emakumezkoengan duen eraginak salatu, indarkeria matxistaren kontra egin, arrazakeriaren kontrako ahotsa goratu eta patriarkatuaren kultura kritikatu zen deialdi hartan. Greba feministak oihartzun handia izan zuen eta mugimendu feministak deialdia errepikatzea erabaki du. Martxoaren 8ko deialdia behar bezala prestatzeko Sakanako mugimendu feminista saretzen hasi da berriro. Bilera asteazkenean izanen da, 18:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean.

IDEA aldizkarian bi ikastetxeren proiektuen berri

Nafarroako Eskola Kontseiluak IDEA aldizkariaren 50. zenbakia argitaratu zuen eguberrien aurretik. Argitalpen horrek 2017-2018 ikasturtean Nafarroako ikastetxeek sustatu zituzten berrikuntzarako makina bat proiektu jaso ditu. Horien artean Sakanako bi ikastetxeren proiektuak daude. Batetik, Sakana Lanbide Heziketa institutua ardatz duen ikasketa-zerbitzu kooperazio proiektuaz argibideak eman ditu Berta De Pablo Gorritz irakasleak. Bestetik, Sagrado Corazon ikastetxeak eta Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoak elkarrekin landutako *Solos en el olvido* proiektuaren berri jasotzen du aldizkariak. Bi erakundeetako eta AFAN elkarte kideen artean idatzi dute azken hori.

Bi ikastetxeetako ordezkariak Nafarroako Eskola Kontseiluak XXII. Jardunaldietan proiektu horien berri eman zuten Tuteran eta Iruñean emandako hitzaldien bidez, lastailean.

Estalopea mustuta

Abenduaren 22an propio egindako ekitaldian mustu zuten etxarriarrek plazako kiosko-estalope berria. Hainbat iritzi sortu ditu eraikuntza berriak baina mustutze ekitaldira bildutakoen artean halako harrotasun sentipena nabari zen. Ordutik asteak joan dira eta estalope berria plazako beste elementu batean bihurtu da, bisitak erakarri dituena.



Mendiolarendako historia-memoria ikertzeko beka

Altsasuko Udalak deitutako ikerketa beka Kitz Mendiola Barandallarendako da. Etxarriarrek *Gerra Zibila Sakanan generoaren ikuspegitik* ikerketa egingen du. Horretarako, bost hilabete izanen ditu eta 700 euro jasoko ditu. Ikerketa horretarako oinarria Altsasu institutuko ikasleek adinduei egindako 300 elkarriketa izanen dira.

Emakumezko zientzialarien berri dute Atakondoan

Atakondoa eskola publikoko Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. mailako ikasleek udazkeneko egun bat Iruñeko Planetariora joateko baliatu zuten. Baina han ez zuten espazioari buruzko inolako proiektuorik ikusi, antzerki-lan bat baizik. Haren bidez aurreko mendeetako zientzialariaren lana eta bizitza ezagutzeko aukera izan zuten. Atakondoako ikasleen modura, Nafarroako beste 18 ikastetxetako ikasleek ere ikusi dute antzezlan, guztira ia 1.700 ikasleek.

Eta haiek antzezlan hori ikusteko ekimena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena (NUP) izan zen. Zehazki, bederatzi emakumezko irakaslerena, aldi baterako aktore bihurtu direnak. Eta euren idatzitako *Yo quiero ser científic a* antzezlaneko protagonisten papera jokatu dute. Garagartzarora arte emanaldiekin segitzeko asmoa dute. Horregatik, ikastetxeek izena emateko aukera dute.

Kintoen atzera kontua abian

Ainhoa Lopez, Oihane Lakuntza, Jon Ander Borrega eta Ekain Alegre dira Altsasuko kintoen buruzagiak. Domekako aukeraketa zozketan Pilar Bueno bideogilearen falta sumatu zen. 53 kinto dira eta otsailaren 5etik 9ra egingen dituzte kinto ospakizunak. Asteartean hasi ziren dantzak ikasten Maixa Lopez de Uralde, Aitziber Etxaiz eta Txetxo Claverrekin.



Lau urteren ondoren, populazioak gora egin du

10 emakumezkotan egin du populazioak gora eta 20.195 sakandar izatera iritsi ginen 2018ko ilbeltzaren 1ean, (% 0,05 gehiago). 2014 eta 2017 artean Sakanak 624 biztanle galdu zituen eta 2018ko iguera txikiak 4 urteko beherako joera eten du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanak biztanle gehien 2013. urtean izan zuen, 20.809 pertsona hain zuzen ere. Hurrengo lau urteetan biztanleriaren % 2,99 galdu zuen ibarrak, 2014an eta 2015ean jaitsiera handiarekin eta txikiagoa 2016an eta 2017an. Beherako joera hori joan den urtean moztu zen eta 10 sakan-

dar gehiago zenbatu ziren urteko lehen egunean: 20.195 sakandar. Horietatik 10.366 (% 51,33) gizonezkoak dira, 2017ko kopuru bera. Emakumezko sakandarrak, berriz, 9.829 (% 48,67) dira, joan den urtean baino 10 gehiago. Udalerrri guztietan gizonezko gehiago dago emakumezkoak baino.

Herrika

Sakanak 15 udalerrri ditu eta haietako bederatzik populazioa handitu dute, Bakaikuk mantendu eta gainontzeko bostek galdu. Biztanle gehiago duten herrien artean, portzentajea kontuan hartuta, gehien igo dena Arruazu da % 4,95 (5 herritar gehiago). Atzetik Etxarri



Larunbatean, errege bezperan, Iturmendin farekin hotsa atera zuten.

Aranatz heldu da (% 1,58 eta 39 herritar). 2013an eta 2014an gertu egon ondoren, Etxarri Aranatz estreinakoz 2.500 herritarren muga gainditu du. Populazioa handitu duten herrietan hurrengoak Irurtzun (% 1,19; 26), Irañeta (% 1,15; 2), Ziordia (% 1,12; 4), Lakuntza (% 0,79; 10), Urdiain (%0,60; 4), Arbizu (% 0,45; 5) eta Arakil (%0,21; 2).

Ehunekoari erreparatuta populazioa galtzen dutenen artean jaitsiera handiena Iturmendik izan zuen, % 4,02 eta 16 pertsona gutxiago. Ergoienan ere jaitsiera nabarmena da, % 3,76, 15 egoardar gutxiago baitaude. Uharte Arakilgo jaitsiera % 2,78koa izan da, urte batean 23 herritar galdu baititu. Olatzagutiak biztanleriaren % 1,38 galdu zuen, 21 olaztiar gutxiago. Jaitsiera horrekin Olatzagutiak 1.500 biztanleko mugatik behera kokatu da. Populazio galera txikiena Altsasuk izan zuen, % 0,16, 12 altsasuar gutxiago. Hala ere, populazioa galtzen duten herrien artean errepikatzen den bakarra Altsasu izan zen.

kaiku (% 2,07; 7) eta Etxarri Aranatz (% 1,75; 43).

Hamar urteko tartean herritar gehien galdu duen herria Olatzagutia da, % 13,82ko galera, 240 olaztiar gutxiago. Biztanleria galera txikiagoak izan dute gainontzeko herriek: Arruazu (% 10,92; -13), Ergoiena (% 9,86; -42), Ziordia (% 9,75; -39), Iturmendi (% 4,74; -19), Uharte Arakil (%4,28; -36), Urdiain (% 4,12; -29), Altsasu (% 2,83; -216), Irurtzun (% 0,72; -16) eta Arakil (% 0,21; -3).


4.320 nafar gehiago

Hirugarren urteaz Nafarroako populazioak gora egin zuen, 4.320 edo % 0,67 gehiago. 2018ko ilbeltzaren 1ean emakumezkoak 327.085 edo % 50,51 dira, aurreko urtean baino 2.522 edo % 0,78 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 320.469 edo % 49,49 ziren, 2017an baino 1.798 edo % 0,56 gehiago. Sakandarrak Nafarroako populazioaren % 3,11 ginen 2018an. Baina Nafarroako populazioaren pisua galdu du Sakanak, 2018an % 0,02 eta 2017an % 0,03.

Sakanako biztanleriaren garapena 2017-2018

Herria / urtea	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	2017	Guztira
	2018	2017	2018	2017	2018	2017			
Altsasu	7.407	7.419	-12	3.740	3.741	-1	3.667	3.678	-11
Arakil	949	947	2	493	492	1	456	455	1
Arbizu	1.124	1.119	5	573	566	7	551	553	-2
Arruazu	106	101	5	57	53	4	49	48	1
Bakaiku	345	345	0	180	181	-1	165	164	1
Ergoiena	384	399	-15	205	214	-9	179	185	-6
Etxarri Aranatz	2.503	2.464	39	1.303	1.280	23	1.200	1.184	16
Irañeta	176	174	2	95	95	0	81	79	2
Irurtzun	2.209	2.183	26	1.138	1.129	9	1.071	1.054	17
Iturmendi	382	398	-16	193	205	-12	189	193	-4
Lakuntza	1.272	1.262	10	668	655	13	604	607	-3
Olatzagutia	1.497	1.518	-21	762	781	-19	735	737	-2
Uharte Arakil	805	828	-23	426	435	-9	379	393	-14
Urdiain	675	671	4	347	354	-7	328	317	11
Ziordia	361	357	4	186	185	1	175	172	3
Sakana	20.195	20.185	10	10.366	10.366	0	9.829	9.819	10

Sakanako biztanleriaren garapena, urteka



Atzera begira

2018ko ilbeltzaren 1eko datuak egun bereko 2009koekin alderatzen baditugu Sakanak hamarkada batean 457 biztanle (% 2,21) galdu dituela agerian gelditzen da. Baina 15 udalerrien populazioaren jokabidea ez da bera, hamarretan behera egin zuen eta bostetan gora. Ehunekoari erreparatuta hamarkada batean biztanle kopuruan hazkunde handiena izan duen herria Irañeta da, % 9,32 edo 15 irintar gehiago. Atzetik ditu Arbizu (% 6,04; 64), Lakuntza (% 5,56; 67), Ba-

BIL TOKI
TABERNA • JATETKEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
**Eguneko menua
10€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

Presoen gaia mahai gainean jartzeko, kalera

Orain Presoak dinamika manifestazioak deitu ditu biharko, 17:00etan, Bilbon eta Baionan. Hego euskal herritarrek Bilbora joateko deia egin dute. Sakanatik hamar bat autobus eta makina bat ibilgailu partikular abiatuko dira Bilborantz

SAKANA

Bi tokitan eginen den manifestazio bakarra da biharkoa. Orain Presoak dinamika ordezkariek haren aurkezpenean esan zuten, "Baionan eta Bilbon batuko gara datorren astean, elkarbizitzan bizitzeko dugun nahia eta bakerako dugun desira oinarri, etorkizun hobe bati ateak zabaltzeko. Baina baita, espainiar eta frantziar estatuei oraindik bake justu eta iraunkor baterako baldintzak ez direla bete esateko ere, horretarako, espetze politika honekin amaitzea behar beharrezkoa baita".

Etxarri Aranazko Sareko kide Mikel Mundiñanok Belexe Irratian (FM 107,3 eta www.guaixe.eus) gogorarazi duenez, "Orain Presoak dinamika anitz eta zabal bat da, Iparraldeko bakegileek sortutako dinamika batetik datorrena". Bake artisauek eta hainbat pertsonak ETaren armagabetzea azken bururaino eramatea lortu zutela ere gogorarazi du. "Horren ondoren beste pauso batzuk eman behar zirela uste zuen gizarteak eta hor kokatzen da Orain Presoak dinamika. Uste delako, eta beharrezkoa delako presoek korapilo hori askatzea, elkarbizitzan aurrerapauso emateko". Iparraldeko eta Hegoaldeko dinamika bat egin dute eta, beraz, Orain Presoak horretan oinarritzen da. "Presoen auzia konponbidean jartzeko gizarte zibila aktibatu behar dela ikusten dugu, eta espetze politikaren aldaketa exijitza beharrezkoa dela uste dugu", esan du Mundiñanok.

Pausoak emateko

Sareko kideak gaineratu duenez, "gatazka honek urtetan sortu dituen zauriak itxi gabe daude. Ez bakarrik presoek auziarekin. Zauri gehiago itxi beharra daukela badakigu. Gatazka sortu dituen zauriak ixteko badakigu



Sakanatik hainbat autobus abiatuko dira Bilborantz. ARTXIBOA

"ESPETXE POLITIKAREN ALDAKETA EXIJITZEA BEHARREZKOA DELA USTE DUGU"

elkarren arteko zubiak eraiki behar direla. Zentzu horretan, badakigu presoek auzia konpondu nahi badugu desberdinen artean elkartu behar gara". Orain Presoak dinamika konponbidea bilatu, giza eskubideak bermatu eta urteetako garai eta sufrimenduak atzean uzteaz ari direla azaldu du. "Denok izan behar gara parte konponbide horretan".

Igandetik aurrera "espetze politikarekin bukatzeko kontsentsu zabal hori handitu behar dugu. Norabide horretan desberdinen arteko kontsentsuak edo aliantzak lortzen saiatu behar gara. Lortu behar duguna da gehiago izatea eta sentsibiltate desberdineko jende gehiago bildu behar dugu, benetan honi konponbidea eman nahi badugu". Pausoak "lehenbailehen" ematearen beharrez gatzigatu

du. Horretarako, "gizartea aktibo mantendu" behar dagoela azpimarratu du, horregatik, "gizartearen gehiengoak eskatzen ari den norabidean pausoak emateko" dinamika berriak izan direla gaineratu du.

Txokolatea eta salda

Mirentxin Gidariak kolektiboko kide da Beñat Agirre eta Belexe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) azaldu du euren zeregina: "asteburuko kartzeletara furgonetak antolatzen ditugu, presoak bisitatzea doazen senideak eramateko". Nafarroako furgoneta gidatzen 30 bat sakandar aritzen dira. Bidaiak bikoteka egiten dituzte eta bizpahiru hilabeteko bidaiak egiten dituzte denen artean. Gainontzeko hilabeteetan Nafarroako beste eskualdeetako kideek aritzen dira. "Guri furgonetan egiten den bidaiarik luzeena tokatzen zaigu, Almeriara; 2.100 km-ko joan-etorria".

Bilboko manifestazioaren akaberan Areatzako estalopetan Mirentxin Gidariak kolektiboko kideak txokolatea eta salda salduko dituzte kolektiboaren gastuak ordaintzeko.

Maiza larri gaixo dauden presoek zerrendan sartu dute

Jaiki Hadi mediku elkarteak jakinarazi duenez, osasun ikuspegitik begiratuta gaitz larriak eta sendaezinak dituzten euskal presoak 21 dira. Elkarteko kideen arabera, 21 pertsona horiek "Euskal Herrira ekartzea edo zainketa zein baldintza egokien behar dituzte". Medikoen elkarteak kideak jakinarazi zuten, "patologia larriak dituen eta adin nagusikoa den Jon Gurutz Maiza etxarriarra zerrenda publikoari gehitu zaio".

Medikuek jakinarazi zuten, 69 urteko Maizak gaitz ugari ditu: ikusmen zorrotasunaren galera, ezkerreko begiko erretina-askatzea, berriki, eta eskuintekoaren galera haurtzarotik; diabetesa; dislipemia; hipertentsioa eta fibrilazio aurikularra. Lannemezango espetzean dago preso, 330 km-ra. 11 urte eta erdi daramatza preso. Elkartetik 21 preso horiek "kalean eta baldintzarik gabe egon beharko luketela" uste dute. "Arduradunek jakin dezatela, pertsona hauen osasunaren eta sufrimenduari bestelako kalkulak egitea ankerkeria hutsa besterik ez da". Etxarriko Saretik gogorarazi dutenez, "denok daukagu osasunerako eskubidea eta kartzelan gaixotasun sendaezin bat duenak etxean egon behar du horri aurre egiteko".

Aita despeditzera ekarri zuten Mariñelarena

Joxe Mariñelarena Garziandia igandean hil zen. Etxerat erakundeko kide zen. Etxarri Aranatzan beila egin ondoren Iruñeko hilerria eraman zuten astearte goizean. Eta Espainiako poliziaren agentez inguratuta, hara eraman zuten hildakoaren seme Luis Mariñelarena Garziandia, A Coruñaeko Teixeroko Curtis espetzean preso dagoena (650 km-ra). Aita despeditu eta senideekin ordu bat egoteko aukera izan zuen Luisek. Handik Iruñeko espetxera eraman zuten. Bestalde, Joxeren heriotzak berezia bihurtuko du presoek euskal herriratzea eskatuz gaur Etxarriko plazan, 20:00etan, egiten den kontzentrazioa.

Huerta de Peraltako grebalariekiko elkartasun afaria

Azkoiengo Huerta de Peraltako langileak greba mugagabea daude abenduaren 26an geroztik. Lan baldintzak hobetzeko hainbat eskaera egin dizkiote zuzendaritzari. LAB sindikatuak gehiengo du enpresa batzordean eta sindikatura afiliatuta dauden langileei laguntzeko badu borroka kutxia. Azkoiengo grebalariek guztiak, ordea, ez daude afiliatuta eta haiei laguntza emateko Huerta de Peraltako LABek eta greba batzordeak elkartasun kutxa martxan jartzea erabaki dute. Kutxa horretatik pagatuko dira ere grebak sortutako gastuak. Elkartasun kutxa hori elikatzeke elkartasun afaria eginen da Bakaikuko elkartearen gaur, 21:30ean (15 euro). Afarira joan ezin baina ekarpena egin nahi dutenek dirua honako kontu korrontean sar dezakete: ES63 3035 0058 370581236517.

Bestalde, Altsasuko Ospa herri mugimenduak Foruzaingo grebalariekin izandako jokabidea kritikatu du. Eta "sistemaren oinarriak defendatzen dituzten mertzenario" gisa definitu ditu. "Huerta de Peraltan (Maravillas gaztetxean...) argi geratu dira helburu horiek; kapitalaren interesak defendatu eta altxatzen direnak erreprimitu". Erreprezioaren aurrean "altxatu beharra" aldarrikatu dute Ospatik.

EAJk bere egoitzan egindako pintaketak salatu ditu

Eusko Alderdi Jeltzaleak Bakea kalean duen Batzokian Maravillas aurrera idatzi eta okupazioaren ikurrak margotu zituzten astelehenean. Horrekin batera fatxadara pintura ere bota zuten. Nafarroako Gobernuak Iruñeko Maravillas gaztetxea hustu zuen egun berean jo zuten EAJren egoitzaren kontra. Altsasuko jeltzaleek Twitter bidez zabaldutako oharrean adierazi dutenez, "halako jarrerak ezin dira gizarte demokratiko batean onartu, bizikidetzaren defendatzaile behar den irmotasun berarekin kondenatu behar dira halakoak".

Bestalde, gaztetxeari babesa adierazteko hainbatek Iruñeko mobilizazioetan parte hartu dute.

Frontoiko teilatua konponduko dute Ziordian

Egoera txarrean dago eta itajurak sortu dira eta egitura ez kaltetzeko egingen dituzte lanak

ZIORDIA

Ziordiko Udalak Toki Eder frontoiko teilatua berritu, sabai aizuna kendu eta argiteria berritzeko lanak emateko deialdia egin du. Lanek 168.129,43 euroko aurrekontua dute (BEZ bane). Lanak hiru hilabete eta erdian egin beharko dira. Baina hori egin ahal izateko, lehenik, udaletxean bere proposamenak aurkeztu beharko dituzte ilbeltzaren 21eko 14:00etarako.

Pilotalekuaren teilatuan fibrozementuzko (uralita) eta argia sartzen uzten duten poliesterrezko plaka ondulatuak daude. Denboraren joanarekin hondatu egin dira eta itajurak sortu dira. Urak sabai aizunaren egurrezko egiturari eragin diezaiolke eta udalak hori saihestu nahi du lanekin. Teilatua berria txapazkoa izanen da eta argia sartzen uzteko polikarbonatozko panelak jarriko dituzte. Frontoi barruko sabai aizuna kendu eta teilatua berria pilotetatik babesteko plastikozko sare bat jarriko da. Azkenik, gaur egun frontoia argitzen duten 12 lanparak kendu eta LED argiak jarriko dituzte haien orde. Horrela, argindar kontsumoa % 52,5 murriztu eta kirol azpiegiturako argitasuna hobetuko da.



Aizkorben ur hornidura eta argiteria berritzeko lanak egingen dituzte.

Hiru herrietako lanak egiteko gobernuaren zain

Finantza aldetik jasangarriak diren inbertsio gisa onartuta daude Aizkorbe, Izurdiaga eta Hiriberriko lanak. Horiek emanak daude eta lanak hasteko Arakilgo Udala Nafarroako Gobernuaren gastu konpromisoa jasotzeko zain dago

ARAKIL

113 milioi euroren kontura Nafarroako Gobernuaren eta Espainiakoaren artean tirabirak izan ziren udazkenean. Foru kontuak superabit hori zuen eta hori inbertsioetara bideratu nahi zuen foru administrazioak. Azkenik, abendu erdialdean Nafarroako Parlamentuak kopuru horretatik 35,5 milioi euro Tokiko Inbertsio Planera eta Banda Zabalen Plan Zuzentzailerara bideratzea erabaki zuen. Haietan Arakilen egingen diren dozena bat herri-lan jaso dira.

Parlamentuak legea onartu zain, Arakilgo Udalak tramiteak aurreratu zituen eta legea onartu bezain laster hiru herrietako

lau lan emateko deialdia egin zuen. Udalak lanak emanak ditu, baina Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren ebazpen baten zain dago. Gobernuak ekarpen ekonomikoa egingen duela idatziz konpromisoa hartu ondoren soilik sinatuko du Arakilgo Udalak lanen enpresa hartzaileekin. Lanen deialdian baldintza hori jasoa zegoen eta enpresek onartu dute. Hori bai, segituan aipatuko diren lan guztiak aurten despeditu beharko dira.

Aizkorben bi lan

Alde batetik, San Andres kaleko ur hornidura, saneamendu, euri-uren sareak eta zoruaz berri-

tzeaz Construcciones Valeriano Santesteban SL enpresa arduratuko da. Horren truke 177.691,7 euro jasoko ditu. Aldi berean, udalak Aizkorbeko argiteria publikoa berritzeko lanak eman ditu Aldakin enpresak 14 LED argi jarriko ditu, 5 errepede ondoko etxeetan eta 9 herrian. Horrekin batera, haien agintekoadroa legedira egokitzeko eraldatu egingen da. Argiteriako kableak lurpean sartuko dituzte eta horregatik berriak izanen dira. Eta farolen oinarriak ere. Guztia 23.422,68 euroren truke.

Izurdiaga eta Hiriberri Arakil

Izurdiagako tren-geltoki inguruko kaleko ur-horniduraren

eta ur-beltzen sareak berritu eta euri-urak jasotzeko sarea egin eta, horrekin batera, kaleko zoru berritzea. Lan horiek guztiak egingen ditu Eregi Herrilan eta Zerbitzuak SL enpresak. Lan horiek egiteagatik enpresak Arakilgo Udalaren 47.568,83 euro jasoko ditu.

Urdalurko uharkako ura Sakanan barna zabaltzen duen saretik Hiriberri Arakilera bitarteko ur-sarea ez dago egoera onean. Ihes ugari izaten dira. Urtero 47.116 metro kubo galtzen dira. Dirutan, 7.345,38 euro. Galera hori saihesteko Arakilgo Udalak erabaki du hoditeria hori berritzea eta lanak Lakita SA enpresak egingen ditu. Horien truke 59.715,93 euro jasoko ditu.

Argiteria

Nafarroako Gobernuak argindar kontsumoa murriztu eta energia eraginkortasuna hobetzeko asmoz, argiteria publikoa hobetu eta egungoa LEDEkin ordezkatzeko diru-laguntza eman du Aizkorberako. Baita Errotz (17.780 euroko inbertsioa, gobernuaren ekarpena 10.668 eurokoa), Etxarren (23.811,20; 14.286,72), Satrustegi (11.670,40; 7.002,24) eta Izurdiagarako (11.401,60; 6.840,96). Azken herri horren kasuan Arakilgo Udalak eta Izurdiagako Kontzejuak lana koordinatu egingen dute. Izan ere, Izurdiagako tren-geltoki auzotik Irurtzungo mugara arte doan espaloia egin nahi du udalak, oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Izurdiagarrak Irurtzuna oinez joaten direlako, esaterako, astearteetan, azoka egunetan. Udalak espaloia egiten duenean, kontzejuak eskatutako tokietan farola berriendako oinarriak eta erregistro kutxak egingen ditu.

URTE HONETAN GURE AHALEGIN GUZTIAK JARRIKO DITUGU

egunerok

TUREKIN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

🍞 | 🥞

<p>OLAZTI 948 468 755 • Orreaga Kalea, 1</p>	<p>ETXARRI-ARANATZ 948 461 660 • Kale Nagusia, 4</p>	<p>ARAIA 945 314 572 • Andoni Urrestarazu, 3</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ 945 148 368 • Arriagako Atea, 12</p>
<p>ALTSASU 678 323 403 • Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017 • San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185 • Otadiko Kristo Deuna, 19</p>

Ezkaba espetxea ezagutzeko erakusketa

1936ko estatu kolpearen ondoren errepresiorako tresna garrantzitsua zen. Hari buruzko erakusketa Altsasuko lortia kultur gunean dago ilbeltzaren 27ra arte; astelehenetik larunbatera 18:30etik 21:00etara eta igandeetan 16:00etatik 20:30era

SAKANA

Berriozar ondoko Ezkaba mendiko gotorleku bihurtutako espetxean errepublikaren aldeko 2.487 preso zeuden preso 1938ko maiatzaren 22an. Egun hartan kartzelatik 795 presok ihes egin zuten. Europako preso ihesi handienetakoa izan dena gogoratzeko Nafarroako Gobernuak Ezkaba 1938-2018 erakusketa ibiltaria prestatu zuen eta abendu akaberan Altsasura iritsi zen. Haren bidez, foru administrazioak "1936ko kolpe militarren ondoren izandako esparru izugarriaren baten historia gogora ekarri nahi du".

Erakusketak lau atal ditu, eta horietan, ikus-entzuzeko piezak, testigantzak, argazkiak, bideoak eta audioak bildu dira, den-denak Ezkabako presondegiari buruzkoak. "Gotorlekutik presondegiara" atalean, Alfonso XII.ak Iruñea defendatzeko eraiki zuen gotorlekuaren historia eta kartzela bihurtu arteko prozesuari buruzko erreferentziak ikus daitezke. "Elkartasun Sareak" atalak zigorturiko pertsonen senideek jasandako sufrimendua eta oinazea eta presoengandako inguruen sortutako elkartasun eta konpromisozko istorioak ditu ardatz. Emakume ausart eta solidarioen istorioak dira.

Altsasuko lortia kultur gunean ikusgai dagoen erakusketako "Ezkaban hiltzea" atalak 1938ko ihesaldia azaltzen du, baita gotorlekuan jarraitu zuten presoek jasandako bizi-baldintza gogorak ere. Ziega bat bisitatzeke aukera dago. Bukatzeko, "Memoria duten eskolak" deritzon esparruan, memoriaren lekuetan oinarritutako belaunaldien arteko izen bereko hezkuntza-programaren barnean Nafarroako Gobernuak egindako lana errepasa daiteke.

Ihesaren 80. urteurrena gogoratzeko Ezkaba proiektua prestatu zuen gobernuak joan den



lortia kultur gunean dago erakusketa ikusgai.

EZKABA MENDIKO ESPETXEAN HIRU SAKANDAR HIL ZIREN ETA BESTE LAU PRESO EGON ZIREN

urtean eta erakusketa horren zati bat da. Horrekin batera beste hiru ekimen hartu zituen proiektuak: nazioarteko lan-esparrua antolatu zen Botilen Hilerrian (lehena 2017an eta bigarrena joan den urtean); mugaraino iritsi ziren hiru iheslarietako batek, Jovino Fernandezek egindako bideari jarraituz GR225 mendiko ibilbide luzea prestatu zen eta Amaia Kowaschen *Tejiendo redes - Sareak ehotzen* liburua argitaratu zuen, emakumeek presoengandako elkartasun-sareei buruzkoa hain zuzen ere. Guztiaren osagarri ihes egin eta erail zituzten presoengandako berreskuratzeko indusketak egin dira.

Sakandarrak Ezkaban

Mendi gaineko espetze hartan hiru sakandar hil ziren: Manuel Torrano Senar dorrobarra, Vi-

cente Uharte Mercero etxarriarra eta Victor De la Fuente Manzano altsasuarra. 1936ko estatu kolpearen aurretik gotorlekua espetze bihurtua zegoen eta han sartu zuten Rafael Lasa Otegi olaztiarra 1935eko martxoan. Urte hartako azaroan Burgosko espetxera lekualdatu zuten.

Estatu kolpearen ondoren errepublikaren aldeko lau sakandar sartu zituzten preso: Braulio Itxaso Beraza erroztarra, Jose Abaiza Garmendia etxarriarra, Juan Jose Goñi Aristegi altsasuarra eta Tomas Aramendia San Roman olaztiarra. Gerra bete-betean zegoela hainbat gazte soldaduskara deitu zituzten. Horietako bat Rafael Ijurko Mundiñano etxarriarra izan zen, 1929ko kintakoa, 1937ko lastailaren 11n sartu zen armadan, Iruñean. 1938an ihes egingoak atzematen aritu zen. Haietako bat atzeman zuen eta ez hiltzeko erregutu zion presoak. Halakorik ez zuela eginen etxarriarrak. Beste preso batzuk zituen militar batzuen esku utzi zuen eta alde egin zuen. Buelatu zenean buruan tiroa hartuta, berak atzemandako presoak hilda zegoen.



Irurtzunen gauzen berrerabilpena sustatzen du Itxipuruk azoken bidez. ARTXIBOA

Nafarroan trukea sustatzen duen web orria berriro dute

yonolotiro.es atariak gauzen berrerabilpena sustatu nahi du trukearen, oparien edota salmentaren bidez

SAKANA

Egungo kontsumo-ohiturek bultzatuta, oraindik ere bizitza baliagarria duten objektu asko baztertzen ditu gizarteak. Horrela, hondakinak sortzen dira. www.yonolotiro.es web orriaren bidez hondakin bihurtuko liratekeen objektu batzuen bizitza luzatzea lortu da. Norberarendako erabilgarriak ez diren objektuak web gune horren bidez, trukatu, oparitu edo saldu egin daitezke.

Horretan ari da Internet ataria 2011. urtetik eta kudeatzaileek kalkulatu dute, batzaz beste, urtero 2.300 kilo hondakin murriztu dira. Objektu gehienak etxetresna elektrikoak eta elektronikoak, altzariak, arropa eta oinetakoak, bizikletak eta haur-aulkiak eta kirol-artikuluak dira. Nafarroa guztiko eskaintzak daude web orrian eta norbera bizi den mankomunitatearen araberrako filtroa du ere.

2017-2027 Nafarroako Hondakinen Planean jasotako ekintza eta neurrien zati da webgunea eta Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoak kudeatzen du. Nafarroan onartu zen hondakinei buruzko legean jasotzen denez, 2027rako hondakinen % 12 murriztu nahi da. Beste bi helburu dira tamaina handiko hondakinen % 8 eta etxe tresna elektrikoaren % 2 berrerabiltzea.

Berrerabilpena Sakanan

Aipatu www.yonolotiro.es web orriaz aparte, etxean ditugun

objektuen berrerabilpena sustatzen duten hainbat ekimen daude Sakanan. Ezagunena Sakanako Mankomunitatearen Hondakin bilketa Zerbitzuaren bidez eskaintzen dena da: etxean ditugun tamaina handiko gauzak dohainik jasotzen dituen (altzariak, koltxoak, etxe tresna elektriko handiak, arropa...). Emausko Trapuketariak dira etxetara horiek jasotzera joaten direnak. Baina, horretarako, Mank-en 948 464 867 telefono zenbakira hots egin edo www.sakana-mank.eus web orrian dagoen formularioa bete behar eta zehatz-mehatz esan behar da Emausko Trapuketariak zer eramatea nahi dugun. Abisua eman ondoren, Emausko Trapuketariak dira hots eginen dutenak, gauzak jasotzeko hitzordua lotzeko. Sakanara astelehenero, asteazkenero eta ostiraleroko etortzen dira. Emausko Trapuketariak 2017an Nafarroan 10.453.727 kilo bildu zituzten eta % 82 berriro erabiltzeko eta birziklatzeko prestatu zuten.

Berrerabilpena sustatzen duen beste ekimen bat Irurtzungeko Itxipuru taldeak urtaro bakoitzean antolatzen dituen bigarren eskuko azokak dira. Edo Irurtzungeko mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Altsasuko udal ludotekaren bidez antolatzen diren jostailu trukeak. Edo Sakanako Birziklapen Laborategiak sustatutako Kafe Konpondu ekimena. Guztiak berrerabilpenaren kulturaren barruan daude.



Lakuntzan egindako Kafe Konponduko saioa. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Konponketa, berrerabiltzeko era Sakanan zabaltzen

Kafe Konpondu saioak egonen dira Arbizun asteazkenean eta Izurdiagan ostegunean

IZURDIAGA / ARBIZU

Etxean hautsiak ditugun gauzak bota eta hondakinak sortu beharrean, haiek konpondu eta bigarren bizitza bat emateko aukera ematen du Kafe Konpondu ekimenak. Sakanako Mankomunitateko Hondakinen bilketako Zerbitzuak hondakinen kopurua txikitu nahi du, horretarako hautsitako objektuen konponketa eta haien berrerabilpena sustatu nahi ditu.

Mank-en eskutik Batuta elkar-teak, Sakanako birziklatze laborategiak, Kafe Konpondu ekimena ibarrean barna zabal-

tzen ari da. Sakandarrek euren hautsitako objektuak jarritako hitzordura eraman eta Batutako kideek edo hara borondatez hurbildu den edozein pertsona trebek objektuari konponbidea ematen saiatuko dira, guztia kafe goxoa dastatzeko aukerarekin batera. Etxeko objektuak konpontzeko bost saio egin ziren abenduan beste horren beste herrietan. Mank-ek beste bi Kafe Konpondu antolatu ditu: asteazkenean Arbizuko udaletxean, liburutegi ondoko gelan, eta ostegunean, Izurdiagako elkar-tean, 18:00etatik 20:00etara.

Errepidean 3 hildako 2018an

Euskal Herriko errepideetan izandako trafikoko istripuetan 87 hildako izan ziren 2018an. Horietatik 33 nafarrak ziren eta, zoritxarrez, hiru sakandar daude tartean; hirurak ere gizonezkoak, udazken hasierako 3 asteetan hil zirenak. Bi motor gidariak ziren eta bestea autoan zihoan istripua izan zutenean. 2017an ere hiru sakandar hil ziren errepidean.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ALTSASU Gazte agenda. Diseinatzen ikasten. 17:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Pintxopotea. 20:30ean, Gaztetxean.

ALTSASU Kursk filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 12

ALTSASU Gazte agenda. Margotzen ikasten. 17:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 13

ETXARRI ARANATZ Zama doinuz arindu IV. Jaialdia. 17:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Anita Maravillas & Portal 71 konpainiaren Jon Braun txotxongilo ikuskizuna. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Apaintzen ikasten.

17:00etan, Intxostiapuntan.

HIRIBERRI ARAKIL Hautsitako leihoa dokumentala. IAGAK antolatuta. 18:00etan, kontzejuan.

LAKUNTZA Caminos para crecer konpainiaren Alas rotas antzezlana. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kursk filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 14

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sasoiak eta Nafarroako Pentsionistak Martxanek deitutako elkarretaratzea. 12:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 19:00etan, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 16


ARBIZU Kafe konpondu. Hautsita dauden objektuak konpontzeko tailerra. 18:00etatik 20:00etara, liburutegi ondoko gelan.

ETXARRI ARANATZ Martxoak 8ko greba feminista. Sakanako asanbladaren bilera. 18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte asanblada. 19:00etan, gaztetxean.



IRURTZUN Iñaki Beorlegui margolari euskal-mexikarraren migrazioaren eta Mediterraneoaren inguruko marrazkien erakusketa. Urtarrilaren 13ra arte, Pikuxar euskal txokoan.



ALTSASU Ezkaba 1938-2018 erakusketa. Urtarrilaren 27ra arte. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 17

LAKUNTZA San Saastin musika eskolaren kalejira eta kontzertua. 17:30etik, plazan.

IZURDIAGA Kafe konpondu. Hautsita dauden objektuak konpontzeko tailerra. 18:00etatik 20:00etara, elkartean.

ALTSASU Viudas filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

IBILGAILUA

SALGAI
Iturmendin
Autokarabana salgai:
KNAUS TRAVELLER
700MG Kaputxina. Intere-
satuek deitu 678 067 155
tfnora.

LEHIAKETA

GAZTEWOOD. Altsasuko
gaztebaxaren III. Film la-
burren txapelketa. Gehie-
nez 15 minutu. Lanak
MP4 formatuan, DVDan
edo pendrivean aurkeztu
behar dira 2019ko mar-
txoaren 19a baino lehen.
Informazio gehiagorako
gazteewood@gmail.com
edo sare sozialetan gaz-
teewood profilean.

OHARRAK

Odol-emateak Etxarri
Aranatzen: Ilbeltzaren
16an, 17:00etatik 20:30era,
www.adona.es/eu

Odol-emateak Irurtzun:
Ilbeltzaren 17an, 16:45eta-
tik 20:30era, www.adona.
es/eu

Sakana Trenaren alde.
Taldea astelehenero,
19:00etan, elkartzen da.
Behin behineko biltokia
LABek Altsasun duen
egoitzan da, han egiten
dira bilerak.

Nafarroako Elikagaien
Bankuaren alde. Diru
ekarpenak kontu korron-
te hauetan egin daitezke:

Laboral kutxa 3035 0069
52 0690024878, Rural
kutxa 3008 0001 16
0700279128 eta Caixa
2 1 0 0 2 1 7 3 8 7
0200346965

GoiEner. Iruñeko helbide
berria: Kale Berria 111,
31001 Iruñea, tel 948 504
135. Hileroko 1. eta 3. as-
teazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako
laguntza. Zure lanpostua
sortu nahi baduzu Cederna-
Garalurrek honako laguntza
eskaintzen du: idela azter-
teza, proiektua garatzea,
enpresa sortzea edota
marthan dagoen jarduera
sendotzea. Argibide gehia-
go: 948 56 70 10, sakana@
cederna.es edo sakana.
admon@cederna.es

3MBk kontu korrontea
zabaldu du Rural kutxan
eta jendeak han egin di-
tzake ekarpenak 3008
0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina
Arregui klinikan. Parte
hartu nahi dutenek 948
56 38 50 (klinika) edo 689
03 51 02 (Patxi) telefono-
tara hots egin dezatela

Josefina Arregui
klinikako bazkidea izan
nahi baduzu, urtean 12
euro edo nahi duzun ko-
purua eman dezakezu.
Informazio gehiago ami-
gosjosefinaarreguilagu-
nak@gmail.com edo
amigosjosefinaarreguilagu-
nak.blogspot.com

Mintzakide proiektua.
Egonkortzeko denon la-
guntza behar dugu, lagun-
du zabalzen eta finantzaz-
tzen: http://goteo.org/
project/zu-gabe-ezin

Enplegarritasuna
hobetzeko bitartekaritza
eta aholkularitza
zerbitzua. Sakanako En-
presariari Elkarteak lan-
gabeei eta lan bila dabil-
tzenandako duen aholku-
laritza zerbitzua da. Har-
remanetarako, 948 468
307 telefonoa.


OPATUTAKOAK/
GALDUTAKOAK

ERLOJUA ALTSASUN.
Esferaren atzeko aldean
MR hizkiak eta 22-6-53
eta 22-6-78 datak ditu
idatziak. Longines mar-
kakoa. Galdu duenak
Guaixe astekarira hots
egin dezala, 948 564 275

Altsasuko Udaltzaingoko
Altsasun galdutako
gauza hauek ditu: diru-
zorroak, poltsak eta neze-
serrak: 31. Audifonoa: 1.
Betaurrekoak eta betau-
rreko-zorroak: 42. Euritza-
koak eta makilak: 19.
Belarritakoak, kateak,
eskimuturrekoak, erazu-
nak, erlojuak eta imitazio-
ko bitxiak: 31. Arropak eta
oinetakoak: 48. Bizikletak
eta patinak: 10. Beste
objektu batzuk: 8. Etxeko
giltzak eta ibilgailuak.
www.iragarkilaburak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 11



Larunbata, 12



Igandea, 13



Astelehena, 14



INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



Roberto Goikoetxea Galartza

(2018ko abenduaren 31ean hil zen, 59. urte zituela)

"Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan"

Altsasuko eta Urdiaingo lagunak

JAIOTZAK

- **Peru Larrion Salgado**, abenduaren 17an Altsasun
- **Tasnim El Ogdhi Mahdi**, abenduaren 22an Altsasun
- **Egoi Zabala Jimenez**, abenduaren 24an Altsasun
- **Maddi Rodriguez Arratibel**, abenduaren 27an Etxarri Aranatzen
- **Mohamed El Ogdhi Errabbany**, ilbeltzaren 3an Olaztin
- **Irati Lopez Razkin**, ilbeltzaren 4an Altsasun
- **Ugaitz eta Oier Gaulabur Lopez de Sabando**, ilbeltzaren 4an Dorraon

HERIOTZAK

- **Maria Teresa Anda Goikoetxea**, abenduaren 20an Bakaikun
- **Ana Isabel Goikoetxea Quintana**, abenduaren 21ean Altsasun
- **Maria Ignacia Zubelzu Ostiza**, abenduaren 24an Urdiainen
- **Norlan Alexis Talavera Herrera**, abenduaren 26an Irurtzunen
- **Maria Rosario Mendia Alcalde**, ilbeltzaren 3an Altsasun
- **Roberto Goikoetxea Galarza**, abenduaren 31n Urdiainen
- **Emilio Pardo Moneva**, ilbeltzaren 1ean Irurtzunen
- **Antonio Mendiola Garziandia**, ilbeltzaren 3an Etxarri Aranatzen
- **Jose Angel Mariñelarena Garziandia**, ilbeltzaren 6an Etxarri Aranatzen

ESKELA



Antonio Mendiola Garziandia

—Goian bego—

Familiak momentu latz hauetan
gure ondoan egon zareten guztioi
eskerrik beroenak eman nahi dizkizue

Antonioren familia

Etxarri Aranatzen, 2019ko urtarrilaren 11n

ESKELA

Antonio Mendiola Garziandia

'osaba Antonio'
(1927-01-08 - 2019-01-03)

Anai-arrebak: Maria Ageda eta
Gonzalo Jimenez (†), Jexus (†) eta
Puri Barandalla, eta ilobak

"Gozo bizi eta ala fan"

Frantsisenekuek eta kaxetakuek
Etxarri Aranatz



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

ESKELA




Felix Urra Mariñelarena

Gure lurretan sustraitu,
eta hazi bihurtu zara, gerizpea,
babesa, borroka griña eta
kemena emango duen hazia.
Zarena zarelako, gu izango gara.
Maite zaitugu, gure ethezaina.

Zure familia

ESKELA



Felix Urra Mariñelarena

Bazkide jatorra, lagun miña,
elkartean, herrian eta gizartean txertatuta

Irabxo elkartea
Irurtzun

ESKELA



Jose Angel Mariñelarena Garziandia

Etxarri Aranatzzen hil zen, 2019ko urtarrilaren 6an, 77 urte zituela.



"Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan..."

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi.

Joxeren familia

OROIGARRIA

II. Urteurrena

Txomin Leiñena Isasti

'Txomin Panadero'



Lehen zeunden gurekin,
orain gogoratzen gara zurekin,
egon ziur noizbait
egongo garela elkarrekin

Pasala-Urdiain, 2019ko urtarrilaren 8an

ESKELA

Joxe Mariñelarena Garziandia



'Meiku'

Azken arnaserara arte,
zure bidetik denak etxeratu arte

Etxarriko senideak

ESKELA

Joxe Mariñelarena Garziandia



Zuk erakutsitako bidetik,
Luis, Oihan, Boltio eta gainontzeakoak
etxeratu arte

Luisen eta Juan Bautistaren kuadrila



ESKELA

Joxe Mariñelarena Garziandia



'Meiku'

Aita-amen etxeak defendatuko ditugu
seme-alabei etorkizun goxoa eskeintzeko

Etxarriko ezker abertzalea

ESKELA



Joxe Mariñelarena Garziandia



(Juan Bautista Mariñelarena Garziandia lehendakariaren aita)

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

**Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle,
ikasle eta langileak**



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI-ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUAK LAKUNTZAN

11:00 Etxarri Aranatz 1 - Tipi Tapa
12:15 Lagun Artea 08 - Lagun Artea 07
13:00 Etxarri Aranatz A - Urdiain

PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINAK OLAZTIN

10:00 Urdiain - Altsasu
10:50 Etxarri Aranatz A - Sutegi 1
11:40 Altsasu B - Altsasu A
12:30 Aralar Mendi 1 - Aralar Mendi A
13:20 Etxarri Aranatz 1 - Sutegi A

Sakanako Futbol Topaketak: igandean kimuen 7. jardunaldia Lakuntzan eta benjaminen 4. jardunaldia Olaztin

Eguberrietako atsedendialdiaren ondoren, bueltan dira Sakanako Futbol Topaketak. Asteburu honetan, gainera, txapelketako bi mailak ariko dira lanean. Batetik, kimuen mailako 7. jardunaldia jokatu da Lakuntzan eta, bestetik, benjaminen 4. jardunaldia Olaztin.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten.



SASKIBALOA CBASK-ek galdu egin zuen Liceoren kontra

Autonomia Arteko 2. mailan 11. jardunaldia jokatu zen abenduaren 23an eta CBASK Altsasuk Fonseca Liceo Monjardinen kontra jokatu zuen, Iruñean. Partida oso estua izan zen, eta azkenean, puntu eskas baten aldearekin, 71 eta 70 irabazi zion Liceo Monjardinek CBASK Altsasuri.

Autonomia Arteko 2. mailako lider jarraitzen du CB Cenicero La Alcoholera taldeak (18 puntu). CBASK-ek seigarren postuari eutsi dio (14 puntu). Larunbatean Lizarran jokatu du CBASK-ek, sailkapenean hamargarrena den Ega Perfil Oncidena taldearen kontra, 20:00etan, Lizarreria kiroldegian.

Ibai Jimenez masajista, izagirretarrekin Astanara

TXIRRINDULARITZA Izagirre anaien konfiantzazko masajista da altsasuarra eta beraiekin joan da Astana Pro Team taldera. Bestalde, Ziordiko bizilaguna den Gorka Izagirre txirrindularia igandean Ormaiztegi ziklokrosean izandako erorikotik osatzen ari da

Ibai Jimenez masajista altsasuarraren ibilbidea Izagirre anai txirrindulariekin lotuta dago. Jimenez 2012an Rural Kutxa taldean hasi zen masajista lanetan, gero Euskaltel Euskadi taldera joan zen eta bertan eza-gutu zuen Ion Izagirre txirrindularia. Berari masajeak ematen zizkion eta Ormaiztegioko Bahrain Merida taldera joan zenean hara joan zen ere Ibai Jimenez.

Aurten Astana Pro Team taldeko kide dira Ion eta Gorka Izagirre eta beraiekin ere talde berrira joan da Jimenez. Gorka Izagirreren igandeko erorikoa eta gero, Ziordiko bizilaguna puntuan jartzen ibili da altsasuarra. "Kolpe handia hartu zuen, baina bekanean lau puntu egin zizkieten eta badakizu, "txapa y pintura" pixkat egin eta martxan dago. Hurrengo egunean 150 km egin zituen!" azaldu digu Ibaik.

Ibilbide berriari ekin dio Ibaik, gogotsu. "Izagirre anaien kon-



Ibai Jimenez. UTZITAKOA

fiantzazko pertsona naiz eta beraiekin jarraitzen dut lanean. Gogotsu nago, aldaketek beti motibazio handiagoa izatea ekartzen dute. Printzipioz ez da aldaketa oso handia, baina Astanan euskaldun asko gaude lanean

eta alde horretatik niretako aldaketa hori oso polita da" gaineratu digu masajista altsasuarrak. Egutegiari dagokionez, ilbeltzaren 20an Calpera joko dute, training cap bat egitera, eta lehendabiziko lasterketa ofiziala Valentziako Vuelta izanen dute.

Gorka Izagirreren erorikoa

Igandean Ormaiztegi ziklokrosa jokatu zen. Proba bikain zihonan, Astana taldearekin debutatu zuten Gorka eta Ion Izagirre anaien erorikoa gertatu arte.

Gorka lasterketan bigarren postuan zihonean, bizikletaren kontrola galdu eta zubiaren petrilaren kontra kolpe ederra jaso zuen, aurpegian. Zumarragako ospitalera eraman behar izan zuten eta, lau puntu eman behar izan zizkieten bekanean. Atzetik bere anai zetorren eta lurtean bukatu zuen, baina zauririk gabe.



SUTEGI

Olaztiko torneo Gasteizera

ARETO FUTBOLA Eguberriaren III. Hierros Aldasoro areto futbol torneo jokatu da Olaztiko Erburua kiroldegian. Lau taldek jokatu zuten torneo: Araiako Zirauntzak, Gasteizko Batzarrek, Olaztiko Sutegi eta Araiako Alipendi-Zalditxok. Finalerdietan, Batzarrek

Zirauntzari irabazi zion eta Alipendi-Zalditxok Sutegiri. Torneoko final handian Gasteizko Batzarre taldea nagusitu zitzaion Alipendi-Zalditxori, 2 eta 5, eta, hortaz, Gasteizera joan zen III. Hierros Aldasoro Torneo.

FUTBOL PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Pamplona B 0-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Artajones	26
9	Etxarri Aranatz	19

PARTIDUA

LARUNBATEAN
16:00 Amigo - Etxarri (Amigo)

Etxarri bederatzigarrena da

Eguberriren aurretik Etxarri Pamplona B taldea hartu zuen. Pamplona aurreratu zen, baina Etxarri partidaren kontrola hartu eta gol aukera ugari sortu zituen. Baloia ez zen kontrako atean sartu eta 3 puntuek Iruñera ospa egin zuten.

FUTBOL ERREGIONALA

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Ardoi - Lagun Artea 1-1
Salesianos - Altsasu 2-3

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagun Artea	36
4	Altsasu	28

PARTIDUAK

IGANDEAN
15:45 Lagun Artea - Altsasu (Zelai Berri)

Derbi sakandarra igandean Lakuntzan

Eguberriak baino lehen Zizurren jokatu zuten Lagunek eta Ardoik. Ardoi aurreratu zen, baina lakuntzarrek ez zuten etsi eta bukaeran berdintzea lortu zuen Anderrek. Altsasu eta Salesianos kontrako partidari, Javierrek Altsasu aurreratu zuen baina bi gol sartu zituzten Iruñekoek. Mikelek berdintzea eta Imanol Lobok garaipenaren gola sartzea lortu zuten. Etzi bi talde sakandarren derbi erregionala hartuko du Lakuntzak.

EMAKUM. ERREGIONALA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Gazte Berriak 0-2

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	45
12	Altsasu	13

PARTIDUAK

IGANDEAN
18:30 Auto Areta - Altsasu (Aretan)

Auto Areta du aurkari Altsasuk

Emakumezkoen erregionaleko mailako Altsasuko taldeko neskek Gazte Berriak taldekoen kontra aritu ziren asteburuan, eta 0 eta 2 gailendu ziren Antsoingoak. Igandean sailkapenean 17.a den Auto Areta taldekoen kontra ariko dira.



Naiara Diez Lointek Gernika Bizkaiaiko taldekideekin, Galatasarayko kantxan entrenatzen. LOINTEK GERNIKA

Istanbuletik zein emaitza ekarriko zuen Diezek?

SASKIBALOIA Atzo arratsaldean EuroCupeko playoffetako itzuliko partida jokatu zuen Naiara Diez kapitain altsasuarraren Lointek Gernikak Galatasarayren kontra, Istanbulen. Joanekoan irabazi eta gero, itzulikoan ere aurrera egitea espero zuten

Naiara Diez saskibaloia jokalaria altsasuarraren Gernika Bizkaia taldeak historia egiten jarraitzen du. Iaz EuroCupean parte hartu zuen taldeak lehen aldiz, baina ez zen lehen fasetik pasa. Aurten, aldiz, EuroCupeko 2. fasean edo playoffetan jokatzeko sailkatu zen talde bizkaitarra lehendabiziko aldiz bere historian, lehen

fase bikaina egin eta gero. Are gehiago, ilbeltzaren 3an jokaturako playoffetako lehendabiziko partidari 84 eta 69 irabazi zion Lointek Gernikak nori eta egungo EuroCupeko talde txapeldunari, Istanbulen Galatasaray taldeari. Ikusgarria. Atzo itzuliko partida jokatu zuten Istanbulen, Ahmet Comerts Sports

Hall kiroldegian, eta Guaixea isterakoan ez genuen gertatutakoaren berririk.

Partida gogorra espero zen Erotzeko moduko astean, Istanbulen hegaldia hartu baino lehen hitz egiteko aukera izan genuen Naiara Diezekin. “Galatasarayren kontrako garaie-

na historikoa izan zen, bera delako aurreko urteko EuroCupeko txapelduna. Beraz, oso pozik gaude, baina badakigu itzuliko partida oso zaila izango dela, Istanbulen giroa oso gogorra delako. Baina erronka polita da, pozik goaz eta ea zelako lana egiten dugun” azaldu zigun. “Emakumezkoen saskibaloia zale asko ditu Istanbulen. Partidak animatzera jende asko joaten da, baina gure mailako jokalariei asko gustatzen zaigu halako giroetan jokatzeko eta polita izango da Istanbulen jokatzeko” gaineratu zuen.

Altsasuarrak aipatu zigunez, geroz eta jende gehiago hurbiltzen da Lointek Gernika emakumezkoen taldea animatzera. “Saskibaloia sekulako zaletasuna du Gernikan, eta Maloste askotan betetzen da, baina Galatasarayren kontrako partidari akaso orain arteko giroa onena izan genuen. Eskertzekoa da zaleen babesa; jokatzeko orduan asko nabaritzen da eta eskertzen da. Horregatik ere irabazten dira partidak” aitortu zuen.

Atzo partida gogorra espero zuten Naiara Diezek. “Hasieratik presionatzera aterako dira, eta guk defentsa sendoa egin behar dugu eta erasoan efektiboak izan behar gara, gure jokoa egin behar dugu” nabarmendu zuen. “Malosten 15 puntugatik irabazi genuenez, Istanbulen 14 puntu baino gutxiagoko aldearekin galtzen badugu ere,

guk egingo genuke aurrera eta EuroCupeko 16 talde onenen artean sailkatuko ginagokete. Dena den gu partida jokatzera eta irabaztera aterako gara. Badakigu giroa gogorra izango dela, baina irabaztera goaz” azpimarratu zuen kapitainak.

Atzo gauean jakingo zen zein taldek egingo duen aurrera EuroCupean, baina nolahi ere, denboraldi bikaina darama Gernika Lointek taldeak. EuroCupean jokaturako 9 partidetatik 6 irabazi ditu -atzokoa kontuan izan gabe-, eta Emakumezkoen Dia Ligan jokaturako 14 partidetatik 11 irabazi ditu eta sailkapenean hirugarrena da Lointek Gernika (25 +2 puntu), Spar Citylift Girona talde liderretik (27+9 puntu) 2 puntura. Istanbulen bueltan, igandean sailkapenean bosgarrena den Valencia B.C. taldearen kontra jokatu dute, 18:30ean, Valentzian.

Naiara Diezek Gernikarekin bere seigarren denboraldia egin du. Eskolta postuan jokatu du (Altsasu, 1987-01-29, 1,81 m) eta taldeko jokalaririk kuttunenetakoa da Gernikako kapitaina den altsasuarra.

GALATASARAYREN KONTRAKO PARTIDA OSO GOGORRA IZANGO ZELA AURREIKUSTEN ZUEN GERNIKAK



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Hauek dira gure txapeldunak!

PALA Abenduaren bukaeran jokatu ziren XIV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak, Etxarri Aranatzan. Mank-ek eta Gure Pilota klubak hainbat laguntzailerekin antolatutako txapelketan guztira 33 bikote lehiatu ziren. Finalak maila handikoak izan ziren, oso lehiatuak eta joko bikainekoak, zaletasuna sortzen dutenak. Horrela, kattagorriak mailako finalean Araitzi eta Juneri 0 eta 18 irabazi zieten Amaiak eta Iratik; usoen

mailan Izadiri eta Eiderri 18 eta 22 gailendu zitzaizkien Ane eta Maialen; pottoken mailan Maialenek eta Julenek 25 eta 12 irabazi zieten Auritzeri eta Olaiari eta tximeletetan Lidia eta Maitenaren kontra 18 eta 25 gailendu ziren Uxue eta Naroa. Bigarren mailako final estua Olaiak eta Mainerrek irabazi zuten Iratiren eta Leireren kontra (25 eta 18), eta lehen mailako final handian Ane eta Leire 16 tantotan utzi zituzten Amaiak eta Mainerrek (16 eta 25).



Korrikalariak Altasuko Krosean. ARTXIBOAX

Altasuko Kroserako izena ematea zabalik

ATLETISMOAN Aldi berean Nafarroako Kros Motza izango dena ilbeltzaren 20an jokatu da

Ilbeltzaren 20an Dantzalekuk XXXIII. Altasuko Krosa hartuko du, aldi berean Nafarroako Kros Motza Txapelketa izango dena. XXXIII. Altasuko Krosa 13:30ean abiatuko da (5.200 m) eta federatuek eta federatu gabekoez hartu ahal izango dute parte, 16 urtetik gorakoek. Izena ematea www.dantzalekusakana.com web gunean egin beharko da, ilbeltzaren 18ko 18:00ak arte.

Kategoria txikiak ere

Helduen proba baino lehen, kategoria txikiak probak jokatuko dira, Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarriak izango direnak. Goizeko 10:30ean 18 urtez azpiko 4x1000 m erreleboak jokatuko dira, 10:50ean 16 urtez azpiko 4x800 metroko erreleboak, 11:10ean 14 urtez azpiko 4x800 erreleboak, 11:30ean 12 urtez azpiko 4x550 m erreleboak, 11:50ean 10 urtez azpiko 4x550 m erreleboak, 12:30ean gizonezkoen nagusien proba (4.000 m) eta 13:00etan emakumezkoen nagusien proba (4.000 m). Izena ematea zabalik dago Nafarroako Atletismo Federazioan ilbeltzaren 17ko 23:59ak arte, eta atletismo klubek dtecnica@fnaf.es e-postara euren taldeetako jokalariei parte-hartzaileen berri eman beharko dute.



Martija, Altuna, Ezkurdia eta Galarza, material aukeraketan. ASPE

Zabaleta bidean; Martija eta Ezkurdia puntuen faltan

PILOTA Bihar sakandarren arteko lehia izango da Labriten: Ezkurdia eta Galarza Altuna III.aren eta Martijaren kontra. Biek bina puntu dituzte eta hirugarrena lortzea ezinbestekoa dute. Irribarriak eta Zabaletak Elezkano II.a eta Rezusta dituzte aurkari

Binakako Pilota Txapelketan lehiatzen ari diren pilotari sakandarrak txanponaren bi aldeak ezagutzen ari dira. Txanponaren alde onean Jose Javier Zabaleta dago. Etxarrego atzelariak eta Irribarriak garaipen garrantzitsua lortu zuten igandean Eibarren, Migel Gallastegi pilotari handia zenaren omenaldian. 19 eta 22 irabazi zieten Olaizola II.ari eta Albisuri Katedralean jokatutako partida estuan. Izugarri jo zuen Aspeko bikoak, eta urrezko puntua lortu zuten, Binakako Txapelketan bosgarren puntua eta lidergoa lortzea ahalbideratu ziena.

Ezkurdia eta Martija, punturik pilatu ezinik

Txanponaren beste aldean, aldiz, Ezkurdia eta Martija daude. Ezkurdia Ladis Galarzarekin osatzen du bikotea, eta azken partidak galdu egin dituzte. Jokoz bolada onean dabil arbizuarra, baina ez, ordea, Ladis Galarza. Nahi eta ezin, horrela

dabil Baraibarkoa. Larunbatean Beotibarren Artolaren eta Mariezkurrena II.aren kontra jokatutako partidaren bikain aritu zen Ezkurdia, baina ez zuen atzeko koadroetan behar zuen babesa topatu eta hori ez zen partida irabazteko nahikoa izan. Aldiz, Mariezkurrena II.ak eta Artolak gehiago asmatu zuten eta 16 eta 22 irabazi zieten Ezkurdia eta Martijari.

Bestalde, Altuna III.ak eta Martijak ezin izan zuten Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontra punturik bildu. Leitzako pilotaria ikusgarri aritu zen eta berak erabaki zuen partida, eta Imaz Martija baino gehiago izan zen atzean. Horrela, bere bos-

HIRUGARREN PUNTUA BEHAR BEHARREZKOA DUTE EZKURDIA-GALARTZAK ETA ALTUNA-MARTIJAK

garren porrota pilatu zuten Altuna III.ak eta Martijak.

Sailkapena

Gauzak horrela, Binakako Txapelketako ligaxkan 5 puntu dituzte Elezkano II.ak-Rezusta, Irribarriak-Zabaletak eta Olaizola II.a-Albisuk. Lau punturekin daude Artola-Mariezkurrena II.a, eta hiru puntu dituzte Bengoetxea VI.a-Imazek. Azkenik, bina punturekin daude Ezkurdia-Galarza, Altuna III.a-Martija eta Urrutikoetxea-Aretxabaleta.

Ezkurdia Martijaren kontra

Ligaxkako 8. jardunaldian sakandarren arteko lehia hartuko du bihar Labritek, Altuna III.a eta Martija Ezkurdia eta Galarzaren kontra ariko baitira. Hirugarren puntua beharrezkoa dute biek eta partida oso gogorra espero da. Irribarriak eta Zabaletak, aldiz, Elezkano II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari igandean Zumaian.

PILOTA Bakaikoa Promesen Txapelketa galduko du, lesioagatik

Abenduaren 30ean Labriten jokatutako partidaren lesionatu egin zen Joanes Bakaikoa. Ezker eskuko hatz nagian haustura du Etxarri Aranazko aurrelariak eta ezingo du Binakako Promesen Txapelketan aritu. Axier Arteagak ordezkatu du etxarriarra Promesetan, Urretabizkaia II.aren batera aritzeko. Bikoak larunbatean jokatutako txapelketako lehen partida Bergaran, Alberdiren eta Erasunen kontra, eta 22 eta 14 irabazi zuen, Promesen Txapelketako lehen puntua lortuz.

Bestalde, abenduaren 23an Nafarroako Pilota Federazioak antolatutako Nafarroako Klubaren arteko finalak jokatu ziren Labriten. 22 urtez azpiko binakako finalean Olaetxeak eta Goikoeak (Irurtzun) Aizkorbe eta Apezetxea (Umore Ona) izan zituzten aurkari, eta partida oso lehiatua, 16 eta 22 irabazi zuten Umore Onakoek. Beraz, Olaetxea eta Goikoeak Nafarroako txapelkunordeak ditugu.

IÑIGO ARITZA PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

IGANDEAN, IKASTOLAN, 16:30EAN

UMEAK, BENJAMINAK

Edorta – Ekhi

Igarki – Ekaitz Zufiaurre

Ekaitz Berdud – Egoi

Ekhiñe – Alaine

Juna – Bidane

Garazi – Anitz

Aratz – Urko

Ioar – Harri

KIMUAK:

Alejandro – Asier

Beñat – Aiora

Eñaut – Oier

Hodei – Enaitz

Xabier – Aimar

HAURRAK:

Patxi – Peru

Oier – Asier

Ikastolako txapelketa, bueltan

Eguberrietako oporren ondoren, igandean XXI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako 4. jardunaldia jokatuko da ikastolako frontoian, 16:30etik aurrera. Txapelketa ligaxkan jokatzen ari da eta guztira 50 partaide ari dira parte hartzen, 34 mutil eta 16 neska.



Satrustegiko elkartean jokatu zen aurtengo Sakanako Xake Txapelketa. UTZITAKOAK

Sakanako Xake Txapelketa Jabier Habansendako

XAKEA 39 xakelarik hartu zuten parte Satrustegin jokaturako txapelketan, iaz baino 23 gehiagok

Abenduaren 22an Sakanako Mankomunitateak antolatutako XIX. Sakanako Xake Txapelketa jokatu zen Satrustegiko elkartean, Zaldi Beltza Xake Taldearen, Satrustegiko elkartean eta kontzejuaren eta Arakilgo Udalaren laguntzarekin.

8 sakandar

Guztira 39 xakelarik hartu zuten parte txapelketan, aurreko urtean baino 23 gehiagok, eta horietatik 8 sakandarrak ziren: Koldo Flores, Sebas Insausti, Ismael Anton, Mikel Cano, Markel Intxaurraga, Juan Andres Cerro, Ruben Claver eta Mikel Castellano. Aipatzekoa ere bada 12 urtetik beherako partaideak izan zirela tartean, maila ikusgarria eman zutenak, eta 4 emakume lehiatu zirela, aspaldiko partez. Goizetik hasita iluntzera arte, giro bikaina egon zen Satrustegiko elkar-

tean eta zenbait satrustegiaren ere proban aritzera animatu ziren.

Habans, Lacruz eta Castellano sarituak

XIX. Sakanako Xake Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izan zen 1.900 ELO puntutik behera. Txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatu zen, goizeko 10:00etan hasi zen, eta bazkaltzeko atsedendia egin eta gero, iluntze aldera jakin izan zen norendako izan ziren sariak. Txapelduna Jabier Habans izan zen, Axel Roviralta, Daniel Mugika, Diego Moral, Gregorio Sola, Mikel Otxoa eta Unai Ruizen aurretik. 16 urtetik beherako kategorian 10 urteko Oier Lacruz gailendu zen, Haimar Leone eta Pablo Mugikaren aurretik. Eta sakandarren artean Mikel Castellano izan zen fina. Saria jaso zuten guztiek.

ARETO FUTBOLA Berdeek urtea garaipenekin hasi eta bukatu zuten

2018 urtea Peñiscolari 1 eta 3 irabaziz despeditu eta gero, 2019 urtea modu ezin hobean hasi zuten Osasuna Magna Xotak, ostiralean Jaen Paraiso Interior taldeari 4 eta 3 irabazi baitzion 3.000 ikuslerekin betea zegoen Anaitasuna pabilioian.

Bi taldeek kontrako atea bilatu zuten hasieratik. Atsedendira hirunako berdinketarekin

heldu ziren Osasuna Magna eta Jaen, lehen zati ikusgarria egin eta gero. Bigarren zatian parez pare ibili ziren bi taldeak, baina Rafa Usinek garaipenaren gola sartu zuen. "Jaen oso arerio zaila da, eta horregatik garaipenak zapora hobia dauka" adierazi zuen Imanol Arregik.

Sailkapenean El Pozo Murcia da liderra (41 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena da (33 puntu). Hain zuzen ere, liderraren kontra arituko da talde berdea bihar, 13:15ean.



Txakurkrosean parte hartu zuten 95 kideek txandaka egin zuten irteera JAVIER GARCIA LERGA

Etxarriko Txakurkrosa sendotzen doa

TXAKURKROSA laz baino 40 kirolari gehiago aritu ziren Etxarriko Txakurkrosean, 114 guztira. Patinetan Jon Gonzalez gailendu zen, bikejoringean Joseba Garcia eta Ainara Elbusto eta txakurkrosean Mikel Etxeberria eta Tamara Vazquez

Abenduaren 23an jokatu zen, Etxarri Aranazko kanpinean, Euskanikross taldeak eta Xalok kirol, dietetika eta nutrizio zentroak hainbat babeslerekin antolatutako II. Etxarriko Txakurkrosa. Behe-lainoa egon zen goiz guztian, baina korrika egiteko primerakoa izan zela aipatu digu Euskanikross taldeko Igor Artieda etxarriarrak. "Tenperatura egokia zen txakurrendako eta gustura aritu ziren guztiak" aipatu digu.

Erronka, gainditua

Iazko parte-hartzaile kopurua mantentzea zen erronka, baina xedea hobetu zuten, 40 partaide inguru bildu baitziren Etxarriko kanpinean, 114 guztira, euren txakurrekin. Hiru modalitateetan jokatu zen proba: lehen, bikejoringa, parte-hartzailea bizikletari lotua joatea eta txakurra bizikletari lotua. Modalitate honetan 15 kirolari lehiatu ziren; patina, parte-hartzailea patin baten antzeko batean joa-

tea eta txakurrak patinari lotuta. Modalitate honetan 4 kirolari aritu ziren; eta, azkenik, txakurkrosa, txakurrari lotuta korrika egitea. 95 kirolarik egin zuten honen alde.

Etxarri Aranazko kanpinaren inguruan prestatutako ibilbide ederrean jokatu ziren probak (6 km). Lehenik eta behin bikejoringekoak abiatu ziren, segidan patinekoak eta azkenak txakurkrosekoak. "Ibilbidea iaz baino hobeki zegoen, lokaztua eta hezea baina korrika egiteko hobeki. Ibilbide azkarra da, zenbait tokitan geldia, putzu handiren bat ere bazegoen eta gorabehera eta errebuelta asko dituen, oso entretenigarria. Oso kontentu

zeuden parte-hartzaileak" gaineratu du Artiedak.

Probari dagokionez, bikejoringean Joseba Garcia eta Ainara Elbusto izan ziren txapeldunak. Patinetan, aldiz, Jon Gonzalez Garcia lazkaotarra gailendu zen eta Juan Bautista Urtasun urdiaindarrak hiruugarrena sailkatu zen. Bera izan zen proban aritu zen sakandar bakarra, eta podiumera igo zen. Azkenik, txakurkrosean Mikel Etxeberria eta Tamara Vazquez igo ziren podiumaren gorenera.

Bukaeran auzate ederra egon zen denendako Etxarriko kanpinean bertan eta sari ematean ohiko trofeoek gain hainbat sari zozketatu ziren. Kirolari gehienek ibilbidearen edertasuna nabarmendu zuten eta askok hurrengo urtean itzuliko direla aipatu zuten. Bestetik, antolakuntzan oso kontentu daude. 25 boluntario aritu ziren lanean guztia behar bezala joateko eta haiei eskerrak eman nahi dizkie Igor Artiedak.

ETXARRIN ARITU ZIREN KIROLARIEK IBILBIDEAREN EDERTASUNA GORAIPATU ZUTEN

Beriain, Bargagain, Aralar, Trinitatea...

MENDIA Makina bat sakandarrek jo zuten gure mendietara, 2018 urteari agurra eta 2019ari ongi etorria egitera. Igandean Sakanako Mendizaleak taldeak urteko lehen irteera eginen du: Araotz-Oñati

Urtetik urtera geroz eta jende gehiago animatzen da urtea despeditzera, edo urteari ongi etorria ematera mendira joatera.

Esaterako, urteko azken egunean, abenduaren 31n, irurtzundarrek Ergako Trinitateko bidea hartu zuten, txokolate beroa hartu eta gero. Iratxo eta Pikuxar elkarteek antolatutako ekimenean urtetik urtera jende gehiagok parte hartzen duela adierazi digute irurtzundarrek. Gauza bera Lakuntzan. Zabalarte mendi elkarteak antolatuta, IX. Lakuntzesuarri goera egin zuten urteko azken egunean, Aralarra. Aldiz, Olaztiko Sutegik eta Altsasuko Mendigoizaleek



Irurtzundarrek Ergara jo zuten urteko azken egunean. UTZITAKOIA

zaleek deituta, Aizkorri izan zuten helmuga abenduaren 31n. Goiza hotza izan zuten bidaide, baina lainoa jasotzerakoan, egun zoragarria.

Errege egunean urtero Sakanako Mendizaleak taldekoak Beriainera igotzen dira. Hala egin zuten aurten ere, eta azkeneko turroiak eta goxoak dastatu zituzten bertan, izotzari aurre egin eta lainoa jaso eta gero, sekulako eguzki eta eguraldia lagun zutela. Aurten urteko lehen igandea izan zen Errege eguna, eta altsasuarrek ohiturari eutsi zioten, urteko lehen igandean Bargagainera igotzeko eta urte berriari ongi etorria emateko ohiturari. Talde polita bildu zen Urbasako bargako Bargagain gurutzean.

Mendigoizale Eguna

Abenduaren 23an Euskal Herriko Mendigoizale Eguna ospatu zen Aralarako santutegian, Gabonen aurreko igandean urtero egin ohi den moduan. Sakanako eta Larraungo hainbat txokotatik igo ziren mendizaleak Aralarra, eta bertan meza, auzatea eta musika izan zituzten. Aspal-



Beriainen, Errege egunean. UTZITAKOIA

diko lagunekin biltzeko eta gure artean ez dauden mendizaleak oroitzeko egun bikaina izan zen.

Araotz-Oñati, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleek 2019ko txangoei ekin diete. Igandean Araotz-Oñati mendi ibilbidea egingo dute. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik. Ohiko herrietako arduradunei eman behar zaie izena, bestela, 639 117 631 telefonora hots egin behar da.

Urbasan 215 txirrindulari

MENDI Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) urtea despeditzeko antolatutako 36. San Silvestre Zikloturista Martxa urtetik urtera gora doa, proba ez lehiakorra eguerdira aurreratu zutenetik. 2017an 144 txirrindularik hartu zuten parte, eta 2018an, azken edizioan, 215 lagun animatu ziren urtea bizikleta gainean bukatzera.

Altsasutik Urbasara iristen lehena Ion Zeberio izan zen (16:45), Asier Irigoien eta Eneko Oraaren aurretik. Emakumezkoetan Lourdes Oiarbide izan zen lehena. Guztiak salda bero-beroa zuten zain Urbasan, eta bukaeran, Txalaparta tabernan, oroigarria jaso zuten. Bestalde, lehenendako trofeoa izan zen.



GUAIXE / SDA



IDOIA TAPIA

Uharteko I. Mendi San Silvestrea

MENDI LASTERKETAK Uharte Arakilen lehenengoz urtea korrikan despeditu zuten, baina ez zen ohiko lasterketa izan, I. Mendi San Silvestrea baizik. Lau lasterketa jokatu ziren Itxesi inguruetan: 7 urtetik txikiagoena, 8 eta 10 urte bitartekoena, 11 eta 14 urte artekoena eta 15 urtetik gorakoena (5 km). Primerako giroarekin esan zioten agur urteari.



SUTEGI

Olaztin Audikana eta Lezea nagusi

ATLETISMOA Olaztiar asko animatu ziren urte korrikan despeditzera. Sutegi klubak antolatuta, guztira 108 korrikalarik parte hartu zuten 16. Olaztiko San Silvestrean. 7 urtera bitartean Asier Agirre eta Irene Cruz gailendu ziren, kimuetan Haran eta Haizea Trevejo, kadeteetan Unax Trevejo eta Ainhoa Agirre, eta nagusietan Raul Audikana eta Miren Lezea.



PIKUXAR

157 korrikalari Pikubestean

ATLETISMOA Pikuxar Euskal Txokoak bigarreniz Pikubestrea edo Irurtzango San Silvestrea antolatu ziren. Guztira 157 korrikalari animatu ziren, 14 urtez azpiko 83 neska-mutiko eta 14 urtetik gorako 74 korrikalari. Bukaeran pintxo potea izan zen, partaideendako esne litroa eta dominak eta herriko komertzioen loteak zozketatu ziren, giro bikainean.



Ikusle asko hurbildu ziren Altsasun San Silvestrean parte hartu zutenak animatzera. NEREA MAZKIARAN

640 korrikalari Altsasuko 40. San Silvestrean

ATLETISMOA 40 urte luze hauetan zendutako korrikalariak eta bazkideak izan zituen gogoan Dantzaleku Sakana klubak eta, horrekin batera, 40 urte hauetan proba irabazi duten lau emakume altsasuarrak omendu zituzten

Altsasuko San Silvestrea beti da berezia baina aurten, akaso, bereziagoa izan zen. Izan ere, 40 urte bete zituen Nafarroako San Silvestrean artean proba beteranoena denak. Lagun Onak elkarteak hasi zen lasterketa antolatzen, eta 25 urtez lan egin eta gero, duela 15 urte Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Sakana Triatloi Taldeak hartu zuten urteko azken lasterketaren ardura. Orduetik Mario Lopez de Uralde Memoriale izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen korrikalari altsasuarraren omenez.

40 urte hauetan joandakoak gogoan

Aurtengoa data borobila zenez, 40. urteurrena, urte luze hauetan Dantzaleku Sakana klubeko zendutako korrikalari eta bazkideak omendu zituzten: Juan Jose Igual, Hodei Iturrioz, Esteban Martinez, Iker Borrega, Daniel Ziordia, Goizeder Azazeta, Javier Martirena eta Mario

Lopez de Uralde. Horrekin batera, 40 urte hauetan emakumezkoen lasterketa irabazi duten lau altsasuarrak ere errekonozimendua egin zitzaizkien: Silvia Zulet (1986an irabazi zuen), Loli Mendoza (1987an), Marijo Arza (2000n) eta Jone Pelaez (2009an). Proba hasi baino lehen guztien omenez auresku oso berezia dantzatu zuten Irantzu Gonzalez Azpiroz Dantza Eskolakoek.

Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza, beste behin txapeldun

Aurtengo Altsasuko San Silvestreko proba nagusia osatzera 540 korrikalari animatu ziren. (5 km). Ez zen sorpresarik egon eta aurreko urteko garaipena berriro zuten Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak eta Izaskun Beunza olaztiarrak. Biek proba honetako euren bosgarren garaipena ospatu zuten.

Sergio Garcia de Eulateren atzetik Ruben Mendieta eta Imanol Irurtzun sailkatu ziren, eta Izaskun Beunzaren atzetik Er-

kuden San Martin eta Leire Estarriaga. Bukaeran oparia jaso zuten guztiek.

Proba nagusiaren aurretik kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren Altsasuko Foru Plaza inguruan. 100 neska-mutil inguruk parte hartu zuten geroz eta jarraitzaile gehiago dituen proban. Ikusle ugari bildu ziren korrikalariak animatzera.



Lau emakume omenduak. N. MAZKIARAN.

"Antzezlanarena txantxa bat da, Altsasukoena ez"

MERCHE HERRERA ETA JUAN MANUEL HERRERO 'ZAPA' TARIMA BELTZA

'Madres y pasotas' lana berrestreinatuko dute, Altsasuko ama kemenen alde. Ilbeltzaren 26an izanen da, larunbata, 19:30ean izanen da, Iortia kultur gunean

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2018ko maiatzaren 26an estreinatatu zuen Tarima Beltza antzerki taldeak *Madres y pasotas* antzezlan. Urte berria hasi da eta antzerki jardunaldi berria hasteko antzezlan berrestreinatzea erabaki dute. Ilbeltzaren 26an izanen da, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Gainera, emanaldi berezia izanen da.

2017an 10 urte bete zituen taldeak, eta iaz ospatu zenuten.

Bi urtez behin sortzen dugu antzezlan bat. *Falstaff* egin genuenean ez zuen urteurrenarekin bat egin, eta orduan iaz *Madres y pasotas* estreinatatu genuenez hamargarren urteurrena haren estreinaldiarekin ospatzea erabaki genuen.

Zenbat denbora eskaintzen diozue lan bat prestatzeari?

Prozesu polita da. Hasteko antzezlan aukeratu behar dugu. Kontuan izan behar dugu zenbat pertsonai behar ditugun, izan ere, gu orain bost gara. Ondoren, testua irakurtzen dugu eta pertsonaiak nolabait prestatzen hasten gara. Orduan, Jon Barbarin gure zuzendariak pertsonai banaketa egiten du. Pertsonaiak garatzen ditugu.

Nola aukeratu dira pertsonaiak? Batzuetan pertsonaia ikusten duzu eta hori nahi duzu. Bakoi-



Entseguaren une bat.

tzaren ezaugarriak begiratu behar dira ere, adina eta abar. Polita da pertsonaia prestatzea. Guztiz sartu behar zara.

Antzerki taldean egoteak inplikazio handia eskatzen du.

Bai. Ez da bakarrik entseguetara joatea. Guk dena egiten dugu. Etxean ere testua ikasi behar dugu.

'Madres y Pasotas' antzezlan berrestreinatuko duzue. Zergatik orain? Herri eskaeratik. Estrenaitu genuenean, egun berean, Iruñean, Josefina Arregiren inguruko emanaldi bat zegoen. Gainera,

ezkontza garaia da. Hortaz, gure ikus-entzuleetako askok ezin izan zuten etorri. Gainera, urteko antzerki zikloa hasteko modu bat ere bada.

Berezia izango da.

Berrestreinatuko genuela erabaki genuenean pentsatu genuen irabazitakoaren erdia Altsasuko auziarekin zerikusirik zuen kausaren bati ematea. Hortaz, *Madres y pasotas* ama kemen bati buruzko istorioa denez, Altsasuko auzipetutako gazteen amak omentzea pentsatu genuen. Baita aitak ere, noski. Baina kasu honetan antzezlan ama baten ingurukoa da. Eta paralelismoa dauka: Mariak edozer gauza egiten du bere semeagatik. Baina hori komedia da, txantxa bat. Altsasun gertatzen ari dena egia da.

Nola omenduko dituzue?

Irabazien zati bat emango diegu, eta antzezlanaren ondoren ekitaldi xume bat egingo dugu. Ventura Ruiz poemagileak poema batzuk sortuko ditu, eta irakurriko ditu. Amak egongo dira.

Antzezlan berrestreinatzen duzuen bakoitza ezberdina da?

Gauza asko daude. Nola sentitzen zaren, jendearen beroa... Sentimendu berdinarekin egingo dugu, agian gehiago.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Urte berri on!!!

Jada urtarrilean gaude, eta honekin Gabonei amaiera ematen diegu. Orain hasten dira urteroko komeriak, loditu dut eta argaldu nahi dut! Aukera asko ditugu buruan: kirola egin, elikadura zaindu... baina arazoren bat suertatzen zaigu beti: hotza dago kanpoan, beraz, kirola egiteko gaizki eta etxean asperraldia dela eta gehiago jaten dugu ...

Beraz, arroparekin disimulatu behar dugu, hona hemen hau lortzeko hainbat truko:

1. Barneko arropan inbertitu: barneko arropa ona erabili beharko dugu, gure gorputzaren itxurari egokitutakoak.

2. Proporzioak errespetatu: orokorrean pertsona gutxi dira proporzionalak, gorputzak oso ezberdinak dira goitik eta behetik. Batzuek aldaka handiak, beste batzuek ez zaie gerria nabarmentzen... Beraz, proporzioak mantendu behar ditugu, harea-erloju itxura lortuz...

3. Zalantzaurrean, kolore bakarra: ez du axola argala zaren, altua, txikia, kurba handikoa edo taila handikoa, soluzioa beti kolore

bakarrez janztea da.

4. Erabili kolorea zure onurarako: kolore argiak eta ilunak erabili beharko ditugu gune onurarako. Hau da, gorputzeko beheko zatia zabalago badugu, goian kolore fuerteak eta estanpatuak, eta alderantziz.

5. Marra bertikalak: elezahar asko dago modaren inguruan, baina hau benetakoa da. Marra bertikalak silueta arinagotzen du, eta estilizatu.

6. Zapata kolore egokiak: gomendagarria da zapatak praken kolorekoak izatea, eta udan edo soinekoarekin hau azal kolorekoa izan behar da.

7. Kapak: testurekin eta arroparen luzeekin jolastu behar dugu. Praka bakeroak eta kamiseta bat badaramazu gehitu amerikana luze bat, Caftan edo kimono bat.

8. Arroparen tiroa (pixka bat) igo behar duzu: arropa guztia ez da altu eraman behar, adibidez bakeroetan kontrako itxura lortzen da, aldaka zabalak baditugu. Hala ere, telazko praktetan pittin bat igotzen badugu, gerria nabarmenduko dugu.

9. Ez da luzera baizik eta itxura: askotan entzun dugu gona luzeak eta belaur azpikoak jende altuarendako direla. Argalenean, tabladunak eta bolantedunak erabili behar dituzte. Aldiz, kurbadunek tela zurrinak eta zuzenak.



ANA VILCHES

Koloreen dantza bizia

Dantzarima dantza konpainiako eta Milakolore elkarte dantzariak emanaldi koloretsua eta hunkigarria eskaini zuten abenduaren 26an 'Milakolore Dantzan' ikuskizunean. Dantza hizkuntza unibertsala izan zen, eta agertokira atera ziren dantzari bakoitzak sentimenduak, estiloak eta bere gaitasunak eta desgaitasunak azaleratu zituzten.



FERNANDO MORENO

Musika solidarioa

Madre Coraje elkartearendako 1.500 euro jaso zituen Trasteando musika talde altsasuarrak abenduaren 29an egindako bi kontzertuetan. Maria Eskisabel kazetariak gidatu zuen kontzertua, eta betiko abestiak eta kontzerturako propio sortutakoak interpretatu zituzten musikariek. Bi emanaldi egin zituzten lehenengoa laster bete zelako.

Hunkitzen duen barrutik ateratzen den oihua

'Erraiak' irrintziaren inguruko dokumentala estreinatu dute. Lau nafarrek parte hartu dute filmean, tartean bi sakandar: Naroa Anso etxarriarra eta Olibi Galparsoro olaztiarra. Irrintzia benetan sentitzen dutenean egiten dutela azaldu dute

E. Carreño - E. Ruiz ETXARRI - OLAZTI
Irrintzia barrutik ateratzen den zerbait da. Erraietatik. Ekain Martinez de Lizardui *Erraiak* dokumentalaren zuzendaria lagun min baten hiletan lagunaren amonak botatako irrintziak markatu zuen. Aurretik bazekukan irrintziaren inguruan zerbait egiteko ideia, baina hileta horretan emakumearen min oihu hura erabakigarria izan zen. Euskal Herri osoko irrintzilariak bildu ditu Martinez de Lizarduik irrintziaren inguruko dokumentalean. Lau nafar agertzen dira eta haietako bi sakandarrak dira: Naroa Anso etxarriarra eta Olibi Galparsoro olaztiarra.

Martinez de Lizardui zortzi urtez aritu da irrintziaren inguruko ikerketa eta azterketa egiten. Barruko oihu hori nola sortzen den, nondik datorren eta etorkizunik duen erantzun nahi izan du, besteak beste. Hasieran irrintziaren inguruko materiala baino ez zuen bildu nahi, baina Artelan ekoiztetxearekin elkartu zen eta ikus-entzunezko bat egitea erabaki zuten: *Erraiak*. Ordu erdiko dokumentala "benetan hunkigarria" dela esan du Naroa Anso. Filmaren estreinaldian egoteko aukera izan zuen etxarriarrak. "Barnera iritsi zitzaigun".

Barnera iristen da erraietatik ateratzen den oihua. Erraiak dokumentalean Sakanako bi irrintzilari agertzen dira. Irrintzia "barruan dutena" kanporatzeko modua dela esan dute Naroa Anso etxarriarrak eta Olibi Galparsoro olaztiarrak. Festetan eta "giro politetan" egiten ditu irrintziak Galparsorok. "Ez dakit noiz hasi nintzen, nola ere ez. Beste entzun nien eta barnetik atera zitzaidan. Hasieran kaxkarrago egiten nuen eta, ondoren, hobeki". Irrintzia nahi duenean botatzea gustatzen zaio, ez eskatzen diotenean.



Naroa Anso eta Olibi Galparsoro irrintzilariak.

"Festa giroan eta omenaldietan ere bota izan ditut. Hunkitzen zarenean emozio hori atera beharra da", Ansoren hitzetan. Prestatu gabe atera zuen Ansok bere lehenengo irrintzia ere.

Aukera

Oihana Lopezek dei bat bidali zien Ansori eta Galparsorori. "Lagun bat irrintzilariak bilatzen ari omen zen, eta Sakanako norbait ezagutzen ote zuen galdetu zion. Guri esan, eta egin genuen". Kamaren aurrean irrintzia bota zuten. Galparsororen hitzetan, lehenengo irrintziak ez ziren oso onak izan, izan ere, esan bezala, benetan sentitzen duenean botatzen ditu irrintziak. Ansoren kasuan, katarroa zuen eta ez zekien ahotsa aterako zitzaionik: "baina atera zen, eta oso irrintzi ederra bota zuen gainera". Beti ez direla ateratzen azaldu dute irrintzilariak: "bota nahi duzula gerta daiteke, eta ez ateratzea".

Irrintzia barrutik ateratzen den oihua izanik, teknikarik ez dutela azaldu dute bi sakandarrek. Arnas bakarrek oihu bat dela azaldu du Ansok. "Autodidaktak gara". Dokumentalean Nafarroako Unibertsitatean irrintziaren

inguruan egiten ari diren ikerketa bat ikusteko aukera ere badago. Ikerketa honetan irrintziak sortzen duten ahotsaren frekuentzia zer-nolako marrazkiak osatzen dituen aztertzen ari dira. Gainera, orain arte erreparatu gabeko ezaugarriak identifikatu dituztela azaldu dute.

Euskal identitatearen elementu bat da irrintzia, hala ere, Martinez de Lizardui proiektuarekin hasi zenean oso informazio gutxi topatu zuen. Dokumentala osatzen joan zen heinean, aldiz, irrintziaren erabilerari eta xedeari buruz informazioa jaso zuen. *Erraiak* dokumentalaren esanetan irrintzia zaldi basatien gizakiaren imitazioa izan daiteke. "Nik beti festarekin lotu dut irrintzia, baina komunikatzeko oihu bat omen zen": gerrarako eta borrokarako dei bat, min bat kanporatzeko, barrukoa ateratzeko. Leitza aldean baserri batetik bestera komunikatzeko modua ere bazen irrintzia, Ansoren hitzetan: "mezua zuten irrintziak ziren".

Erraiak dokumentala estreinatu berri da eta Sakanara ekarriko dutela uste dute filmean parte hartu duten bi irrintzilariak.



2017ko Zama doinu arindu jaialdiaren une bat. ARTXIBOA

Herri mailako elkartasunezko musika jaialdi handia

Igandean, ilbeltzaren 13an, Zama doinu arindu jaialdia egiten da Etxarrin, 17:00etan eta 19:30ean

ETXARRI ARANATZ

Laugarren urtez euskal presoeri aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatze eta ematen diren hainbat eskubide urraketen zama arintzeko Zama doinu arindu musika jaialdia antolatu dute Etxarri Aranatzen. Kultur etxea beteko da euskal musikari eta abeslari ospetsuak ikus-entzuteko. Musikari bakoitzak bi kantu egiten dituela jakinarazi du antolakuntzak. Igandean izanen da, eta bi emanaldi egiten dira: 17:00eta eta 19:30ean.

Antolakuntzak jakinarazi duenez ate irekierak 16:30ean eta 19:00etan izanen dira, emanaldiak hasi bai-

no ordu erdi lehenago. Hortaz, emanaldiak puntual hasiko direla argitu dute. Beraz, atek emanaldi hasi baino bost minutu lehenago itxiko dituzte. Gainera, online bidez erositako sarrerak inprimatuta eramateko eskatzen dute.

Kartel osatua antolatu dute: Glaukomako Juantxo Arakama eta Lil Martin Selektah; Fermin Muguruza eta Deskontrol-eko Magu-Arri; Pantxo Carrere; Koban; Akelarre taldeko Juanpa, Xanet eta Xabi; Huntzako Josune eta Uxue eta Afu abeslaria. Gainera, Exprai marrazkilariak eta Itziar Ituño aktoreak parte hartuko dute



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Magia doinuak lortian

Haize Berriak bandak eta Hodei magoak ikuskizun ederra eskaini zuten 'Magic Melody' emanaldian. Magoa zeremonia maisuarena egin zuen emanaldian zehar, magia eta ilusionismoa erabiliz edo musikariei bide emanaz. Umorea izan zen ildo nagusia. Bai magia saioetan, bai "musika klasean", bai magoaren eta musikarien edota publikoaren artean.

"Dantza garaikidea dena izan daiteke"

Laida Aldaz artista etxarriarrak dantza garaikideko eskola mustuko du bihar, ilbeltzaren 12an, Noainen: La Faktoria. Dantzari profesionalak trebatzeko eskola izanen da, Nafarroan lehenengoa. Gainera, sorkuntzarako espazioa ere izanen da

E. Carreño - E. Ruiz ETXARRI ARANATZ

1 Zer da La Faktoria?

Zentro koreografiko bat da. Alde batetik, nazioarteko formazioa eskaintzen dugu. Nazioarteko 23 ikasle ditugu: Errusiatik, Lituaniatik, Frantziatik, Italiatik, Kanadatik, Bartzelonatik, Valentziatik, Bizkaitik eta Nafarroatik bertatik etorri dira. Dantza irakasleak ere hainbat herrialdeetakoak dira eta dantza garaikidea erakutsiko dute. Beste alde batetik, dantza saioak sortzeko lekua ere bada. Konpainiak haien sorkuntza prozesua hemen egiteko aukera dute. Lehenengo sorkuntza prozesua *Kirolak* ikuskizuna agertokirako emanaldia bihurtzea izanen da.

2 Zergatik sortu duzue?

Nafarroan ez dago dantza garaikide asko. Marta Coronado, Carmen Larraz eta ni zentroaren zuzendariak gara, eta nafarrak gara. Hiru ere lan egin dugu kanpoan. Carmen hemen bizi da, baina Marta eta biok Bruselan bizi gara. Noizbait itzultzeko asmoa geneukan eta due la urte batzuk hasi nintzen hemen. Ikusi genuen hemen



Laida Aldaz artista. UTZITAKOIA

dantza garaikidean formazioa falta zela, eta pentsatu genuen guk osa genezakeela.

3 Zer da dantza garaikidea?

Dantza garaikidea dena izan daiteke. Ikuspuntu desberdinak

daude: dantza kontzeptuala, antzerki dantza... Dantza mota hau ezagutzen ez duen jendeari esaten diot paisai bat margotzea dantza klasikoa edo balleta izango zela, eta dantza garaikidea Picasso edo Van Gogh bat.

4 Zergatik La Faktoria izena?

Faktoria gauzak sortu eta landu egiten diren toki bat da. Eta gu horretan gaude. Espazio hau lantegi bat da non egunero jendeak sormena lantzen du. Haien teknikak lantzen eta hobetzen ari dira. Ideia horretan oinarritu da izena.

5 Noiz mustuko duzue?

Klaseak dagoeneko hasi dira. Astelehenean hasi ziren. 23 ikasleak hemen daude eta Laura Ariz da lehenengo irakaslea. Baina bihar, larunbata, ilbeltzaren 12an, irekiera ofiziala izango da, 18:00etan. La Faktoria Noaingo Talluntxe poligonoaren D kalean.

6 Ikastaroak dantzari profesionalendako bakarrik dira?

Gure formakuntza jendea profesionalizatzeko eta hemendik ateratzean lana aurkitzeko da. Klase guztiak ingelesez dira. Hiru zuzendariak profesionalki aritu gara eta badakigu gure lanaren hizkuntza ingelesa dela. Leku guztietako jendea egoten da taldetan eta horregatik guk ere klaseak ingelesez egitea erabaki dugu.

7 Zer baldintza bete behar dituzte dantzariak La Faktorian izena emateko?

18 urtetik aurrerako ikasleak hartzen ditugu eta profesionalki teknikak hobetu edo landu nahi dituztenak. Hiru audizio edo sarrera froga egin genituen: Vienan, Uhartan eta Bruselan. Dantza garaikidearen hiriburu nagusia da. Sarrera froga horien ondoren hainbat pertsona aukeratu genituen, eta horiek Nafarroara etorri dira.

8 Ba al dago horrelako zentro gehiago Estatuan?

Holakoa bezalakoa, ez. Badaude eskolak eta zentroak, noski. Baina guk ikasleak ditugu eta, bestetik, sorkuntzarako toki bat da ere. Beraz, konpainia batzuk onartuko ditugu haien erresidencia artistikoak gure espazioan egiteko. Nazioarteko programa eskaintzen dugu. Europa mailan dauden dantza eskolen modeloetan oinarritu gara. Guk ikasi genituen eskoletan.

9 Emaitzarekin pozik zaudete.

Proiektu handia da, lan asko egin dugu eta errealtate bihurtu da. 23 ikasle ditugu eta horrek erakusten digu interesa bada goela. Jendea pozik dago eta hori garrantzitsua da. Aurrerajarratzeko bultzada bat eman digu. Proiektu hau guztiz independentea da, guk bakarrik egin dugu.

10 La Faktoria Noainen dago eta Bruselan bizi zara.

Ez dakit nola egingo dudan. Aspaldi ari naiz handik hona. Zinetika jaialdia sortu nuenetik gehiago etorri behar naiz. Baina gogoak ditut hemen gauza gehiago egiteko eta kulturaren arloan mugitzeko. Oraindik ere ez dakit itzultzeko guztiz prest nagoen.

11 Etorrizunera, zer?

Innova diru-laguntza eman ziguten *Kirolak* 15 minutuko kale ikuskizuna ordu bateko saioan bihurtzeko. Euskal kirolaren inguruan ikertzen ari gara. Euskal kulturarekiko lotura estua daukat; nire kultura da eta betidanik bizi izan dut. Kanpoan hainbeste denbora egon ondoren, interesgarriagoa iruditzen zait gaia.

JARRI KOLOREA
NEGU TXURIARI

ESKUORRIAK
KARTELAK
PEGATINAK
PUBLIZITATEA
LOGOAK
KAMISETAK